

# **AC/GATEPAC (Iparraldeko Taldea). Arkitektura berri baten hasiera gerraurreko Euskal Herrian\***

(AC / GATEPAC (North Group). The Beginning of a New  
Architecture in the prewar Basque Country)

Muñoz Fernández, Francisco Javier  
UPV/EHU. Letren Fak. Artearen Historia Saila.  
Unibertsitate pasealekua, 5. 01006 Vitoria – Gasteiz  
javier.munoz@ehu.es

BIBLID [1137-4403 (2009), 27; 237-276]      Jaso: 2008.03.28  
Onartu: 2009.05.06

---

*Gerraurreko arkitektura berri baten garapena, erlazio estua du 1930. urtean, Aizpurua, Labayen eta Vallejo Donostia eta Bilbotik, Bartzelonako eta Madrileko beste arkitektoekin batera fundatu zuten GATEPAC taldearekin eta AC bere propaganda aldizkariarekin. Izan ere, nahiz eta GATEPAC-eko euskal taldea ez funtzionatu, buletinak, beste elementuekin batera, arkitektura forma eta konzeptzio berriak hedatzen lagundu baitzuen Euskal Herrian.*

*Giltza-Hitzak: Arkitektura. Gerraurrea. Euskal Herria. AC aldizkaria. GATEPAC. Aizpurua. Labayen. Vallejo.*

*El desarrollo de una nueva arquitectura en el período anterior a la Guerra tuvo una estrecha relación con el grupo GATEPAC, fundado el año 1930 por Aizpurua, Labayen y Vallejo en San Sebastián y Bilbao, junto con otros arquitectos de Barcelona y de Madrid, así como su revista propagandística AC. Aunque el grupo vasco del GATEPAC no llegó a funcionar, el boletín contribuyó, junto con otros elementos, en la difusión de nuevas formas y concepciones arquitectónicas en el País Vasco.*

*Palabras Clave: Arquitectura. Pregarra. País Vasco. Revista AC. GATEPAC. Aizpurua. Labayen. Vallejo.*

*Le développement d'une nouvelle architecture pendant la période d'avant-guerre et en étroite relation avec le groupe GATEPAC, fondé en 1930 par Aizpurua, Labayen et Vallejo à San Sebastián et Bilbao, aux côtés d'autres architectes de Barcelone et de Madrid, de même que leur revue propagandiste AC. Et bien que le groupe basque du GATEPAC n'arrive pas à fonctionner, ce bulletin contribue, avec autres éléments, à la diffusion des nouvelles formes et conceptions architectoniques au Pays Basque.*

*Mots Clé : Architecture. Avant-guerre. Pays Basque. Revue AC. GATEPAC. Aizpurua. Labayen. Vallejo.*

---

\* Lan honek Eusko Ikaskuntza eta Institut d'Estudis Catalans 2008. urteko beka jaso du.

## 1. IZPIRITU BERRIA ARKITEKTURAN

XX. mendearren hogeigarren hamarkadan Europan abangoardiako arkitektura berri bat garatzen hasi zen, zeharo modu ezberdinak agertzen zituzten Walter Gropius, Mies van der Rohe, Eric Mendelsohn, Gerrit Rietveld, Le Corbusier edo Robert Mallet-Stevensen eskutik. Hamarkada bukaeran, Madrilen ezarri zen Zaragozako Fernando García Mercadal arkitektoa, atzerriko aldizkarietan eta liburuetan bakarrik presente zegoen arkitektura berria oraindik Espainiara heldu ez zela kexu zen, eta horregatik uste zuen egokia izango litzatekeela Parisen 1925ean ezagutu zuen Le Corbusierren arkitektura ezagutzera ematea<sup>1</sup>. Eta hala ebanjelio berriaren predikatzaile nagusian bilakatu zen eskura zituen *El Sol* moduko egunkari, zein *La Construcción Moderna* edo *Arquitectura* bezalako aldizkari profesionaletan artikuluak idatziz, arkitektura berriaren protagonisten hitzaldiak antolatuz, irizpide berriekin bat zetozen lehenbiziko manifestu moduko proiektuak eraikiz eta arkitektura sentsibilitate berriarekiko atxikimendua agertu zuten profesionalen esfortzuak bilduz, nagusiki Jose Manuel Aizpurua donostiarrarenak eta Bartzelonako Josep Lluís Sertenak.

1927an bertan arkitektura berriarekin edo arrazionalismoarekin bat egiten duen Estatuko lehen obra egin zuen Zaragozan Goyaren Txokoarekin, segituan hainbat artikuluen bidez eta penintsula osoan, baina bereziki Euskal Herrian, eman zituen hitzaldiei esker ezagutarazi zuena. Izan ere 1928ko maitzararen 16an Bilbon egon zen eta egun batzuk beranduago, 21ean Donostian. Modu honetan bere gestioei esker Le Corbusierrek Madrilen eta Bartzelonan hile bereko 9an eta 11an eman zituen hitzaldien jarraipena eta osagarri izan ziren Mercadal-enak. Gainera bere eskutik ere 1929an Eric Mendelsohn Madrilen eta antzaz Bilbon egon zen bere arkitektura berria ezagutzen ematen eta 1930an beste hainbeste egin zuten Mercadal ezagutzen zituen Theo Van Doesburg Madrilen eta Walter Gropius, Estatuko hiriburuan baina baita azaroaren 10 eta 11ean Bilbon eta Donostian ere<sup>2</sup>.

Halaber Euskal Herrian, Bilbotik Luis Vallejo eta Donostiatik Jose Manuel Aizpurua eta bere laguntzailea Joaquín Labayen, Mercadal-en moduan, arkitektura berri baten aldeko jarrera agertu zuten, zenbait artikulua, proiektu eta erakusketen bidez ezagutarazi zutena. Lehenbiziko erakusketa 1928ko uztailean *Asociación de Artistas Vascos*-ek Donostian antolatu zuena izan zen. Bertan, 1927an Madrileko Arkitektura Eskolan titulatu berri ziren hiru lagunek, Pablo Zabalo arkitektoarekin batera, “egikera modernoaren” araberrako lanak aurkeztu zituzten<sup>3</sup>.

---

1. GARCÍA MERCADAL, Fernando. “Arquitectura en Stuttgart. La Exposición de la Vivienda”, in *Arquitectura*, 100, 1927ko abuztua; 298 or.

2. MUÑOZ FERNÁNDEZ, Francisco Javier. “Arquitectura racionalista en San Sebastián. Las conferencias de Fernando García Mercadal y Walter Gropius”, in *Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales*, 23 zkia. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2004; 195- 213 or.

3. “Inauguración de la Gran Semana Vasca. La exposición de artistas vascos, ‘aurreku’ de honor en la Plaza de la Constitución y otros actos”, in *La Voz de Guipúzcoa*, 1928ko uztailearen 15ean. Erakusketaren inguruan: MUR PASTOR, Pilar. *La Asociación de Artistas Vascos*. Bilbao: Museo de Bellas Artes de Bilbao, 1985; 131-135 eta 280 or.

Garai berean Stuttgart edo Zurich-en aurkezten ari ziren etxebizitzaren inguruko gizarte proposamenekin inolako zer ikusirik ez zuten proiektuak ziren, hauetan “ase gabeko **pertzepzio formal berrien gogo bizia**” baitzen nagusi<sup>4</sup>.

Donostiako erakusketako hainbat proposamen, besteak beste Aizpurua eta Labayen egin berri zuten bere arkitektura Studioa edo bulegoa, orduate soilik egin zitzaizketen hainbat proiektu eta altzarirekin batera, Madrileko *Cortijos y Rascacielos* aldizkarian, García Mercadalek *Arquitectura*-n sinatu zuen “Arkitektura Berria Euskal Herrian” izeneko artikuluan, eta nahiz eta anonimoa izan agian Aizpurua eta Labayenek egin zuten Bilboko *Novedades* aldizkarian argitaratu ziren. Azken honetan irakurtzen zituzten nagusiki Alemaniakoak ziren argitalpenetako formatuak, modu trakets batean imitatzeaz gain, jarraitzen zituzten arkitektura eredu argazkiak agertu zituzten ere: Gerrit Rietveldek 1924an Utrechtan eraikitako Schröder etxea, Gropiusen Bauhaus 1925- 1926 bitartekoa, eta 1927ko Stuttgarteko erakusketarako Le Corbusierrek Pierre Jeanneretekin batera egin zituen etxeak<sup>5</sup>.



1928ko iraileko *Novedades* aldizkaria (Iturria: Eusko Legebiltzarra. Liburutegia).

4. “La Gran Semana Vasca. Con un auresku de honor empezaron los festejos”, in *País Vasco*, 1928ko uztailaren 15ean. Azpimarraketa gurea da.

5. “Arquitectura racionalista”, in *Novedades*, 392, 1928ko iraila, orrialdeak zenbatu barik. GARCÍA MERCADAL, Fernando. “Nueva arquitectura en el País Vasco: Aizpurúa, Labayen y Vallejo”, in *Arquitectura*, 115, 1928ko azaroa; 358-362 or. “Restaurant piscina en el Monte Ulía. Arquitectos: Labayen y Aizpurúa”, in *Cortijos y Rascacielos*, 10, 1932ko udazkena; 108.or. eta “Arquitectura moderna en San Sebastián”, in *Cortijos y Rascacielos*, 4, 1931eko udaberria; 104- 105 or.

Bertoko hedabideek Donostiako erakusketarekiko interesa agertu zuten, eta baita garaian Iparraldeko kostaldean egiten ari ziren eraikuntza berriekiko, penintsulako euskal arkitektoentzat erreferente ere izan zirenak<sup>6</sup>. 1928ko udan Donibane Lohitzunen Robert Mallet- Stevensen transatlantiko formako “La Pergola” izeneko kasinoa inauguratu zen, Mercadalek *Arquitectura*n idatzi zuen artikuluan, Euskal Herriko beste proiektuen gainetik nabarmendu zuena Mallet- Stevenena izan zen.

Ez zen kasualitatea izan, Euskal Herrian egin ziren arkitektura berriaren aurreneko proposamenak publizatu zituen artikulua Mercadalek sinatzea. Jada arkitektoak ekin zion arkitektura berriaren aldeko propaganda kanpainarekin bat egiten baitzituen. Baina gainera 1928ko 25 eta 28 bitartean, Madrileko Juan de Zavala arkitektoarekin batera La Sarraz, Suitzan, antolatu zen I CIAM (*Congrès International d'Architecture moderne*) joan zen kongresuan erabakitakoarekin bat egiten zuen. Sigfried Giedion arte historialariarekin batera, Le Corbusier izan zen “arkitektura dagoen lokazti akademikotik ateratzeko eta dagokion egoera ekonomiko eta sozialean jartzeko akzio programa orokor bat ezartzeko” helburua zuen kongresuaz arduratu eta, beste profesional askorekin batera, Mercadal gonbidatu zuena<sup>7</sup>. Guztira hogeitazortzi herrialde ezberdinetako hogeitabost arkitekto elkartu ziren bileran, arkitektura “nazio elkarte” antzeko bat sortu nahian, eta Estatuan Mercadal eta Zavala ordezkari zituen, CIRPAC-aren (*Comité international pour la réalisation des problèmes architecturaux contemporains*) fundazioan konkretatu zena. Nahiz eta kideen artean diferentziak egon, erakundeak hiria eta etxebizitzaren antolakuntzaren inguruko arkitektura berriaren ideiak ezagutzera ematea zuen helburu nagusi, eta hala La Sarraz-en eliteen arreta bereganatu nahi zuen planteamenduen difusio kanala sortu zen.

Hortaz Mercadal Suitzatik bueltatu zenean bertan ezagutu zituen arkitektoen lana ezagutzera ematearekin batera, arrazionalismoaren aldeko talde bat sortez arduratu zen, Luis Vallejo eta Jose Manuel Aizpuruarekin harremanetan jarriz. Horregatik ez zen kasualitatea izan bi arkitekto euskaldunak CIRPAC-eko Estatuko ordezkariak izatea, 1929ko otsailean Basilean antolatu zen II CIAM prestatzeko bileran<sup>8</sup>. Bueltatu zirenean Aizpurua eta Labayenek, 1928ko azaroan hasi zuten Donostiako Klub Nautikoa 1929ko abuztuan inauguratu zuten. *País Vasco* egunkariak proiektuak “porturatutako itsasontzi” batekin zuen antza azpimarratu zuen<sup>9</sup>. Egileek apuntatu zuten moduan argia, airea, kolorea, pozt-

---

6. E.E. “Exposición de arquitectura moderna”, in *La Construcción Moderna*, 18, 1930ko irailak 30; 276-278 or.

7. ENCINA, Juan de la. “De arte. El Estado y la Arquitectura”, in *La Voz*, 1928ko uztailak 14; 1 or. Zirkular orijinala irakurgai: STEINMANN, Martin. *CIAM Dokumente 1928- 1939*, Basel. Stuttgart: Birkhauser, 1979; 15 or.

8. SANZ ESQUIDE, José Ángel. “El periodo heroico de la arquitectura moderna en el País Vasco (1928- 1930)”, in *Ondare*, 23 zkia. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2004; 81 or. “Preparación del Segundo Congreso Internacional de Arquitectura Moderna”, in *Arquitectura*, 119, 1929ko martxoak 108-111 or.

9. “Proyecto de ampliación del Club Náutico, de los arquitectos señores Aizpúrua y Labayen”, in *País Vasco*, 1928ko abenduak 14.

sun, atsedena eta optimismoa nagusi diren eraikina zen, alboan zuen aurreko belaunaldiko kasinoarekin bat ez zettorrena<sup>10</sup>. Baina proiektua, arkitektura berriaren inguruko proposamen guztiak bezala, ez zuen batere harrera honik izan, donostiarrek kajo antiestetikotzat baitzuten eta gainera arkitektoak kide ziren klubatik kanporatu nahi izan zituzten ere<sup>11</sup>.



Jose Manuel Aizpurua eta Joaquin Labayen. 1928-1929. Donostiako Klub Nautikoa (Fototeka Kutxa).

---

10. "El club náutico de San Sebastián", in *AC*, 3, 1931eko lehen eta bigarren hiruhilabeteak; 18 or.

11. 1929ko maiatzaren 2an idatzitako auzokideen gutuna, zenbait udal ziengotzien gutuna 1928ko maitzaren 28an idatzia eta 1929ko ekainaren 4ko udal sesioan irakur daitekenaren arabera. *Donostiako Udal Agiritegia*. D-11, 2519-10, eta Aguinagaren deklarazioak: "Conversaciones con Eugenio María de Aguinaga", in AA.AA. *Aguinaga*. Bilbao: EHAEO. Bizkaiko Ordezkaritza, 1992; 25 or.

## 2. GATEPAC TALDEAREN SORRERA

1930eko udan Gipuzkoako Ateneoak Donostiako Kasinoan *Arkitektura eta Pintura Modernoen Erakusketa* antolatu zuen. Jose Manuel Aizpurua eta Joaquín Labayen, García Mercadal eta Kataluniako Ricardo de Churrucarekin batera, Aizpuruaren lehengusina batekin ezkondua zegoena, arkitektura kontuetaz arduratu ziren. Arkitektura berriaren manifestu diren erakusketaren gonbidapen eta katalogoan, irakur daitekeen moduan orduarteko helburu berdina izan zuten gidari: “publikoa arkitektura berriaren arazoan inguruan interesatu”<sup>12</sup>.

Erakusketan Luis Buñuelek eta Ernesto Giménez Caballeroren pelikulak, Albertiren poesia, eta Salvador Dalí, Juan Gris, Joan Miró eta Picassoren pinturak egon ziren entzun eta ikusgai. Arkitektura proposamenak, “Le Corbusierrek hainbeste gogo biziarekin patrozinatu dituen” formak jarraitzen zituzten erakin maketa eta planoak ziren<sup>13</sup>. Besteak beste Aizpurua eta Labayenen Nautikoaren maketa, Vallejo eta García Mercadalen proposamenak, eta Josep Lluís Sert eta Kataluniako hainbat arkitektoen lanak egon ziren erakusgai<sup>14</sup>.



Josep Lluís Sert. 1929-1930. Muntaner Etxea. Bartzelona (Iturria: AC, 4 aldizkaria).

---

12. *Catálogo. Exposición de Arquitectura y Pintura Modernas. San Sebastián. Ateneo Guipuzcoano.*

13. GABARAIN, Ramón. “En San Sebastián. Una Exposición de Arquitectura y Pintura Modernas en San Sebastián”, in *La Gaceta Literaria*, 90, 1930eko urriak 1; 13 or. R.G. sinatuta.

14. Erakusketaren inguruan aritu dira: SANZ ESQUIDE, José Ángel. “La arquitectura en el País Vasco durante los años treinta”, in *Arte y artistas vascos de los años 30. Entre lo individual y lo colectivo*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1986; 123 or. GARITAONAINDÍA DE VERA, José Ramón. “De las muchas fundaciones del GATEPAC Aizpurúa y la exposición de arquitectura y pintura modernas, San Sebastián 1930”, in *r.a. revista de arquitectura*, 1998ko martxoak 2; 52- 61 or. MOYA, Adeline. *Orígenes de la Vanguardia Artística en el País Vasco*. Madrid: Electa, 1994; 61- 62 or.

Erakusketan arte plastikoak eta arkitektura ulertzeko modu berriak bildu ziren, beranduago antolatu ziren eta Jose Manuel Aizpuruak parte hartu zuen talde ekintzen aitzindari izan zirenak. 1925ean Madrilen sortu zen *Sociedad de Artistas Ibéricos*-en berpizte erakusketa Donostiako Gipuzkoako Ateneoaren laguntzarekin antolatu zen 1931eko irailaren 15tik aurrera.

Propaganda ideologikoko lana (...) edo, esan nahi bada 'kritikoa' (...) desorientatuta dagoena beharrezko egoeran koka dezakeen gaitasun argitzailea (...) obra bakoitza, ona zein ertainekoa, txarra edo bikaina, bere benetako balioan ager dadin (...)

izan zen beste hainbat artista eta idazlerekin batera Rafael Bergamín, Luís Blanco Soler eta Aizpuru eta bere laguna zen Manuel Sánchez Arcas arkitektoek sinatu zuten manifestuan agertu zuten taldearen xedea<sup>15</sup>.

Urte bat lehenago, antzeko intentzioekin GATEPAC tadea eratu zen (*Grupo de Arquitectos y Técnicos Españoles para el Progreso de la Arquitectura Contemporánea*). 1930ko Donostiako erakusketa arkitektura berria ezagutaraztearekin batera, bere protagonista nagusien bilgunea izan baitzen, 1930ko urriaren 26an Zaragozan taldea sortzeko elkartu zirenak. Erakundeak hiru azpitaldeetako egituraketa federal eta autonomoa zuen: Ekialdeko Taldea (Grupo Este), 1930ko abenduaren 6tik aurrera GATCPAC izena hartu zuena (*Grup d'Arquitectes y tècnics catalans per al progrés de l'arquitectura contemporània*)<sup>16</sup>, Barzelonan Serten zuzendaritzapean ezarri zena; Erdiko Taldea (Grupo Centro), Madrilen García Mercadal buru zuena, eta Iparraldeko Taldea (Grupo Norte) Donostia eta Bilbon, Vallejo, Labayen eta Aizpuru jagole gisa osatzen zutena.

Taldearen interesa ez zen arkitektoak biltzera mugatu, eraikuntza eta arkitektura teknikariak ere bildu izan nahi zituen, alegia, proposatzen ari ziren arkitektura berriaren eraikuntza posible egingo luketen material eta eraikuntza tekniken garapena ahalbideratzeko. Haatik, bilerara arkitektoak baino ez ziren joan, horietatik hamar Kataluniakoak ziren (Cristòfor Alzamora, Pere Armengou, Ricardo de Churruca, Sixte Illescas, Francesc Perales, Germán Rodríguez Arias, Josep Luís Sert, Manuel Subiño eta Josep Torres Clavé), zazpi madrilekoak (Ramón Aní-

---

15. "Sociedad de Artistas Ibéricos (1931)", in *Nueva Forma*, 40, 1969ko maiatza, orrialdeak zenbatu gabe. Taldearen inguruan kontsulta daiteke: AA. AA. *Sociedad de Artistas Ibéricos y el arte español de 1925*, Madril: Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, 1995. PÉREZ SEGURA, Javier. *Arte moderno, vanguardia y Estado. La Sociedad de Artistas Ibéricos y la República (1931- 1936)*. Madril: CSIC, 2002. BONET, Juan Manuel. *Diccionario de las vanguardias en España 1907- 1936*. Madril: Alianza, 1999 (1995).

16. 1930ko abenduaren 6ko GATCPAC-aren sorrera bileran hurrengo zuzendaritza- batzordea hautatu zen: Josep Lluís Set ordezkari, Josep Torres idazkari, Cristòfor Alzamora diruzain, Germán Rodríguez Arias/ Ricardo de Churruca liburuzain, Josep Torres/ Pere Armengou erredaktore, Sixte Illescas/ Francesc Perales ordezkari industrial. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. *Akta Liburua. Zuzendaritza- bartzordea*; 1 orr.

Halaber kideen erlazio bat aurki daiteke: PIZZA, Antonio, MARIN, Celia, "Los socios del GATCPAC. (1931- 1938)", in *Una nueva arquitectura para una nueva ciudad*. Bartzelona: Museu d'Història de la Ciutat de Barcelona. Col·legi Oficial d'Arquitectes de Catalunya, 2006; 43-44 or.

bal Álvarez, Víctor Calvo de Azcoitia, Santiago Esteban de la Mora, Fernando García Mercadal, Felipe López Delgado eta Manuel Martínez Chumillas) eta hiru Euskal Herrikoak (Jose Manuel Aizpurua, Joaquín Labayen eta Luis Vallejo).

1930ean *Propiedad y Construcción* Bilboko aldizkariak, agian Vallejok intenzio guztiarekin eman zion informazioari esker eta nahiz eta akatsen batekin, talde berriaren sorreraren berri eman zuen:

Bartzelonan arkitekto elkargo bat eratu da Cirpaco (sic) nazioarteko erakundearen filiala dena, European sortu den arkitektura garaikidearen garapen eta eraikuntza arazoari orientazio eta norma modernoaren arabera erantzuteko helburuarekin. Entitateak arkitekto gazteak osatzen dute (...) Zaragozara joango direnak talde nazional bat eraitzeko, dituzten estatutuak irakurtzeko eta modu honetan, Kataluniako ekimenarenpean, talde espainiarra osatzeko<sup>17</sup>.

Kataluniako arkitektoentzat, Estatuan CIRPAC-eko ordezkariak ez zirenak, bilera garrantzi handikoa izan zen eta ardura eta arreta bereziarekin antolatuta zuten. Beraien esku egon baitzen, Mercadal eta Aizpuruarekin batera proposatutako profesionalak gonbidatzea. Funtsean GATEPAC-ek, aintzat hartu baitzuen jada existitzen zen GCATSPAC (*Grup Catalá d'Arquitectes i Tècnics per a la Solució del Problema de l'Arquitectura Contemporánea*). Talde kataluniarrak 1929ko apirilaren 13 eta 27 bitartean Bartzelonako Passeig de Gràcia kaleko Dalmau Galerietan, hots, abangoardiako artistarik aipagarrienen obrak agertu ziren leku beran, arkitektura modernoaren inguruko erakusketa bat ere antolatuta zuten. Garai berean Bartzelonako Nazioarteko Erakusketarako antolatzen ari zen arkitekturarekin, bai eraikin ofizialekin zein Miesek egin zuen Alemaniako Pabioiarekin, zer ikusirik izan ez zuen erakusketa izan zen. 1929 hasieratik Parisen Le Corbusierrekin lanean zegoen Josep Lluís Sert izan zen erakusketaren antolatzaile nagusia eta bertan arkitektura eskolako ikaskide eta lagun gazteen proiektuak aurkeztu ziren<sup>18</sup>. "Arquitectura Nova" izeneko erakusketaren manifestuan eta katalogoan Le Corbusierrek *L'Esprit Nouveau* (1920- 1924) aldizkarian eta *Vers une Architecture* (1923) liburuan azaldu zituen ideak, bereak egin zituzten. Alabaina Kataluniako arkitektoak, Estatuko gainerako profesionalen moduan, iraganeko hizkuntza akademikoaren kontra egiten zuen mintzaira jada ez hain berria ikasten arduratu ziren gehiago, honek suposatzen zituen bestelako inplikazioak baino.

Bartzelona eta Donostiako erakusketetan eta Mercadalen eskutik antolatuta ziren ekimenetan, garaian ez ohikoa zen arkitektura berri baten aldeko interesa

---

17. LOYGORRI de PEREDA, E. "El progreso urbano de Bilbao. Una feliz iniciativa de los arquitectos catalanes. La Cirpaco organización internacional de arquitectos. Nuevas cosas construidas por don Félix de Ugarte y Echevarría", in *Propiedad y Construcción*, 94, 1930eko abendua; 6-7 orr.

18. Erakusketan bakarrik eraiki zen Antoni Puig Gairalten Myrurgia Fabrika (1928) aurkeztu zen eta baita hurrengo proiektuak: Ricardo de Churruga, Francesc Fàbregas eta Germán Rodríguez Ariasen zezen plaza (Donostian egon zena), Cristófor Alzamora eta Enric Pecourten erietxe bat, Pere Armengou eta Francesc Peralesen kirol kluba, Sixte Illescasen aireportua (Donostian aurkeztua), eta Josep Lluís Sert, Josep Torres Clavé eta Joan Baptista Subiranaren udara pasatzeko herria (Donostian erakutsi zena).



agertu zen, eta baita Sert Bartzelonatik, Aizpurua Gipuzkoako hiriburutik eta Mercadal Madriletik arkitektura ulertzeko bokazio bera konpartitzen zutela, Zaragozako arkitektoak zituen kontaktuei esker, European egiten ari ziren proposamenekin bat egin zezakeena. Mercadalek adierazi baitzuen moduan:

CIRPAC-eko talde espainiar bat sortzearen nire konpromesua La Sarraz-en, Madril-en, Bartzelonan, Bilbon eta Donostian jarraitzaileak bilatu eta topatzera behartu ninduen, GATEPAC fundatu genuenekin. Aizpurua honen kiderik sutsuena izan zelarik, 1930an Donostian Arkitektura eta Pintura Modernoen Erakusketa antolatuz<sup>19</sup>.

Aizpurua eta Vallejo, Mercadal eta Kataluniako arkitektoekin batera, CIRPAC-eko euskal kide bakarrak izan ziren. Izatez, denborarekin GATEPAC-a CIRPAC-eko ordezkaria izan zen Estatuan, eta hala adierazi zen taldearen 1931an kaleratu zen AC aldizkariaren lehen zenbakian eta taldeak beste erakunde eta hedabideekin izan zuen korrespondentzian, nahiz eta egoera hau 1932rarte ez gauzatu<sup>20</sup>. Aizpuruak berak 1930an Giedioni, 1929ko Basileako bileran ezagutuko zuen CIRPAC-eko idazkariari, sortu berri zen taldearen berri eman eta gaineratu zuen: “ez zaigu adorerik falta eta zailtasun guztiak gaindetzeko beharra egingo dugu. **Zure aginduetara gaude**”<sup>21</sup>. Horrela Donostiako arkitektoak Giedionek, Mercadali La Sarranzen egin zion Estatuko delegazioa sortzeko gomendio bera jarraituko zuen. Eta hala Estatuko arkitektura berriaren aldeko arkitektoak, Bruselan 1930eko azaroaren 27 eta 29 bitartean antolatu zen III CIAM-era talde antolatu bezala aurkeztu ziren lehen aldiz. Hasiera batean Giedion egiten zutenaren inguruan informaturik zuten Aizpurua, Mercadal eta Sert joateko asmoa zuten, nahiz eta azkenik Sert eta Vallejo bakarrik joan, Mercadal *Arquitectura* aldizkarian honen berri eman zuen bitartean<sup>22</sup>.

Aurreneko saiakeren ostean GATEPAC-a arkitektura berriaren “erabateko garaipena” lortzeko eratu zen<sup>23</sup>. Europako eta Amerikako beste zenbait herrialdeetan ohikoa zen arkitektura berri baten aldeko asoziazionismoa, La Sarrazeko helburuekin jarraituz, lobby bat eratzeke helburuarekin sortu zen, gizartean eragin nahi zuen “arkitektura garaikidearen garapenerako arkitekto eta teknikarien”

---

19. GARCÍA MERCADAL, Fernando. “Testimonio de Fernando García Mercadal”, in *Nueva Forma*, 40, 1969, orrialdeak zenbatu gabe.

20. “GATEPAC”, in *AC*, 1, 1931eko lehen eta bigarren hiruhilabetea; 33 or. 1934ko abuztuaren 10ean Torres-ek Aizpuruari zuzendutako gutuna. GATEPAC-eko datarik gabeko zirkularra zenbait aldizkarietara. Arxiu Históric COAC. Fons GATCPAC Korrespondentzia eta zirkularrak.

21. Aizpuruak Giedioni idatzitako gutuna 1930eko urriaren 28an. Zuricheko GTA. Archive cfr. MEDINA MURUA, José Ángel, *Crónica de la vanguardia. 1927- 1936. La arquitectura de Aizpúrua y Labayen*. Iruñea: Universidad de Navarra. Escuela Técnica Superior de Arquitectura, 2005; 11 or. Doktore tesia. Azpimarraketa gurea da.

22. “IIIe Congrès International d’Architecture Moderne Bruxelles 1930”, in *Arquitectura*, 132, 1930eko apirila; 121- 122 or. GIEDION, Sigfried. “Informe de la comisión encargada de la preparación del congreso de Bruselas de 1930”, in *Arquitectura*, 134, 1930eko ekaina; 186- 188 or.

23. “La labor de los grupos nacionales de técnicos”, in *AC*, 6, 1934ko laugarren hiruhilabetea; 17 or.

organo korporatiboa zen<sup>24</sup>. Le Corbusierrek eta hainbatek defendatu zuten arkitektoa teknikari eta errejidore zen, bere kriterioa bide ezberdinen bidez sustatzeko, konbentzitzeko eta inposatzeko elkartzen zen teknokrata. GATEPAC-a, CIRPAC-a moduan, Elkarte Mugatu bat zen, publizitate kanpaina erasotzaile baten bidez gizarte-erri antzaz bakarra, modernoa eta nahitaez ona zen produktua salzen jakin behar zuena. Funtsean I. CIAM-ean aitortu zen zirkulu tekniko, ekonomiko eta sozialetan eragin nahi izatearen nahia.

Modu honetan iragarri zuen talde kataluniarrak GATEPAC-aren sorrera:

Gure herrian arkitekturaren orientazio unibertsal berriaren garapenean laguntzeko eta aurkezten diren arazoak ikasi eta ebazteko gure ingurura moldatzeko, erakuntza eta altzarigintzaren arlo guztiekin erlazioa duten arkitekto eta teknikari elkarre bat sortu da (...) Orientazio hau funtsezko printzipio gogorretan irmoki oinarrituta dagoela uste dugu, arkitekturak izan behar duen sentzua argitasunez adieraziz, ideal honen alde baliabide guztiekin lan egiteko prest gaude<sup>25</sup>.

Taldeak eskura zituen bitartekoak erakusketa, artikulu, hitzaldi, proiektu eta lehiaketekin batera, bere helburuak lortzeko erabili zuten baliabide nagusietako bat AC aldizkaria izan zen.

### 3. AC ALDIZKARIA

Egonarri gaude aldizkariaren zain (...) Zer berri aldizkariaren inguruan? Noiz jaso-ko dugu? (...) Ez al zarete konturatzen apirilean guadela eta bigarren zenbakia agertu beharko litzatekeela

idatzi zion Jose Manuel Aizpuruak 1931ean Bartzelonan zegoen Josep Torres Claveri, proiektu editorialaren arduradun nagusiari. GATEPAC taldea sortu zen bileran, taldearen publikazioa 1931eko urtarrilean atera behar zela erabaki baitzuten. Buletinaren aurreneko maketa 1930ean egin zen, baina hainbat arazok argitarapena II Errepublikaren aldarrikapenerarte atzeratu zuten<sup>26</sup>.


---

24. UCÉLAY, Enric, "El arquitecto como 'técnico' revolucionario en la Cataluña de la década de 1930", in *El GATEPAC y su tiempo. Política, cultura y arquitectura en los años treinta. V Congreso Fundación DOCOMOMO Ibérico*, Bartzelona: Fundación do.co.mo.mo. ibérico, 2006; 49 or.

25. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC.

26. 1931eko apirilaren 26ean Aizpuruak Torresi idatzitako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

Aldizkariaren inguruan kontsulta daitezke: AA.AA. *El GATEPAC y la revista AC Catalizador de la vanguardia arquitectónica española. 1931- 1937*. Zaragoza: Colegio Oficial de Arquitectos de Aragón, 2005. AA.AA. *AC La revista del GATEPAC (1931- 1937)*. Madril: Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, 2008. GRANELL, Enric. "AC contra todos", in *El GATEPAC y su tiempo. Política, cultura y arquitectura en los años treinta. Actas del V Congreso Fundación DOCOMOMO Ibérico*, opus cit.; 179- 189 or. PIZZA, Antonio. "Desarrollo y propaganda de un ideario moderno: los 25 números de la revistas AC Actividad Contemporánea", in *GATCPAC. Una nueva arquitectura para una nueva ciudad. 1928-1939*, opus cit.; 278- 307 or. ROCA ROSELL, Frances. "AC: del G.C.A.T.S.P.A.C. al S.A.C.", in *AC/ GATEPAC, 1931- 1937*. Bartzelona: Gustavo Gili, 1975; 11-18 or.



AC aldizkariaren maketa, Donostiako Klub Nautikoa ikusten delarik (Iturria: © Arxiu Històric del Col·legi d'Arquitectes de Catalunya (GATCPAC)).

*AC Documentos de Actividad Contemporánea* (1931- 1937) European hogei-garren hamarkadatik garatzen ari ziren beste ekimenekin bat egiteaz gain, ordu-rarte Estatuan argitaratu ziren aldizkarietatik ezberdina izan nahi zuen. Bertoko arkitekturako buletin profesionalak, salbuespenak salbu, gehienetan arkitektura modu eklektikoan ulertzen baitzuten, esanguratsuak ziren eraikinak eta goi mailako gizartearen etxebizitzetan arreta jarriz. AC berriz, abangoardiako izan nahi zuen tade baten propaganda tresnan bilakatu zen, bere proiektuak, edota Europako lagunenak argitaratzera mugatu zelarik. Nahiz eta batzutan taldekoak ez ziren profesionalen lanak ere aztertu zituen<sup>27</sup>. Gainera, 1932az geroztik, taldeak Giedionekin batera hitzartu zuen buletinak CIRPAC-eko partaideen lanak lehen

27. Taldekideak ez zirenen proiektu argitaratuak hurrengoak izan ziren: "Proyecto de estación central de Autobuses para Madrid. Arquitecto: Muñoz Monasterio", in AC, 3, 1931eko bigarren hiruhilabetea; 28 or. "Sección preparatoria del Instituto escuela de 2<sup>a</sup> enseñanza. Madrid. Arquitecto C. Arniches", in AC, 9, 1933ko hirugarren hiruhilabetea; 27-28 or. "Nuevas escuelas rurales en España", in AC, 10, 1933ko bigarren hiruhilabetea, 24- 25 or. Francisco Solano, Fernando Salvador, Manuel Sánchez Arcas eta M. Vias-en proiektuak biltzen ditu. "Edificio de la Metro Goldwyn Meyer Ibérica, S.A. Barcelona. Arquitecto: N.M. Rubió Tudirí", in AC, 14, 1934ko bigarren hiruhilabetea; 22- 24 or.

aldiz gazteleraz argitaratzeko eskubidea zuela<sup>28</sup>. Halaber, CIRPAC-arekin bat egin zuten argitalpenek nagusiki GATEPAC-eko proposamenak bildu zituzten. Hortaz Aizpuru eta Labayenen Donostiako Klub Nautikoak Estatutik kanpo izan zuten hedapena, proiektuarekiko interesa baino, taldeak izan zituen kontaktuei esker izan zen. *Cahiers d'Arts*, *Der Baumeister*, *Het Bouwbedrift* eta *Wasmuths* aldizkariak, eta Alberto Sartoris Henry- Russell Hitchcock eta Philip Johnson-en liburu ezagunek, arkitekto gipuzkoarren eta Mercadal, Sert edo taldeko beste kideen proposamenei egin zieten erreferentzia<sup>29</sup>.

Beraz AC-ek egin zuten arkitekturaren irakurketa partziala eta interesatua izan zen, eta Estatuko eta Europako arkitekturaren garapenaren hainbat protagonisten lanen inguruan ez zuten ezer esan. Aldizkariaren helburua ez baitzen garaiko arkitekturaren ikuspegi bat ematea, baizik eta taldearen ideologia agertzea, protagonista zen imajina erakargarrien bidez eta gehienetan anonimoa zen panfleto telegrafiko batez lagundurik. Buletinaren orrialdeetan garairako berria zen argazkiaren, fotomuntaketa, collage eta tipografiaren bestelako erabilera bat egin baitzen, arktiekto gipuzkoarrek *Novedades* aldizkarian saiatu ziren modu traketsen zer ikusirik ez zuena. Europako beste argitalpenen, batezere *Das Neue Frankfurt* (1926- 1933) germaniarraren ereduak jarraitzen zituen aldizkari propioa zen berea; argazkigintzaren garrantzian, inpresioarako Alemaniatic berandu ekarritako tipografian, papera ex profeso egitea eskatu zuten formatu karratuan eta barruko zutabe banaketan ikus daitekeen moduan.

Formatua, eskarmentu eza, eta edukia eta publizitatearen gainean egin zen kontrol zehatzak, aldizkariaren atzerapenarengan eragin zuten. Hasieran Aizpuru, Mercadal eta Kataluniako taldeak, Donostia, Madril eta Bartzelona arteko korrespondentziaren bidez AC-ko edukiak hitzartu zituen. GATCPAC-a astero biltzen zen horren inguruan aritzeko, baina hilabeteak aurrera joan ahala, denbora falta eta ardura eza zirela eta, aldizkaria Bartzelonan erabakitzera pasatu zen, nahiz eta noiz edo noiz Mercadalek eta Aizpuruak argitaratzeko materialen bat bidali.

Buletinaren lehen zenbakiko portada, taldearen intentzio deklarazio bat bezala uler dezakegu. Arkitektura lan tradizionalen gainetik, Johannes Andreas Brinkmanen Rotterdameko Van Nelle tabako fabrika azaltzen zen (1926- 1930), arkitektura moderno baten sinbolo gisa ordurategoa ordezkatzeko eta bere kontra egiten zuena. Izatez, aldizkariaren hasierako zenbakietan arkitektura kritika ohikoa izan zen. Aizpuruak adierazi zuen moduan “talkazko aldizkaria egin behar da, aurpegia eman beharra dago”, eta Mercadalek gaineratu: “**kritika da egin**

---

28. 1932ko apirilaren 11ean Bartzelonak Aizpuruari idatzitako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

29. Eraikina *Het Bouwbedrift*-en agertu zen 1930eko martxoan, *Der Baumeister*-en urte bereko uztailan, 1931ean *Cahiers d'art*-en Giedionek sinatutako artikuluan eta Mercadalen Goyaren Txokoari eta Serten Bartzelonako Roselló kaleko etxebizitzari ere erreferentzia egin diona, eta 1932ko maiatzean *Wasmuths*-en. Baita ere: SARTORIS, Alberto. *Gli elementi dell'architettura funzionale*. Milano: Ulrico Hoepli, 1932; 429 or. HITCHCOCK, Henry- Russel; JOHNSON, Philip. *The International Style*. New York. London: W. W. Norton & Company, 1995 (1932); 174 or.



AC, 1 aldizkariaren azala.

dezakegun lanik interesgarriena”, nagusiki “gure normen kontrako eraikinen” ingurukoa. Kataluniako taldeak egiten zituen bileretan, dibertigarria zitzaien buletinaren hurrengo biktima nor izango zen erabakitzea, nahiz eta Sixte Illescas, taldeko arkitektoak esan zuen moduan, kritika batzuk umorezko aldizkari batekoak eman<sup>30</sup>. AC-k kritikatu zituen déco arkitektura eta bere barne antolakuntza, Teodoro de Anasagasti, Pedro Muguruza, arkitekturaren irakaskuntzan jarraitzen ziren ereduak, Madrilen eta Bartzelonan eraikitzen ziren edificazioak eta baita erakunde publikoek enkargatutakoak<sup>31</sup>. Errepublikaren gobernuarekin egiten ziren

30. 1932ko maiatzaren 13an Aizpuruak Torresi zuzendutako gutuna eta 1931eko maiatzaren 30an Mercadalek Torresi idatzirik eskutitza. Azpimarraketa gurea da. Illescas-en gutuna GATCPAC-ari 1935 ingurukoa. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

31. “Un botón de muestra”, in AC, 1, 1931eko lehen eta bigarren hiruhilabeteak; 33 or. “Un magnífico proyecto”, in AC, 2, 1931eko hirugarren hiruhilabetea; 33 or. “Brindamos un nuevo impuesto al Ayuntamiento de Barcelona”, in AC, 4, laugarren hiruhilabetea; 31 or. “Soberbio ejemplo de solidez”, in AC, 5, 1932ko lehen hiruhilabetea; 36- 37 or. “Cómo malgasta el Estado el dinero del contribuyente”, in AC, 6, 1932ko bigarren hiruhilabetea; 45 or. “Lo que se construye en el Madrid castizo”, in AC, 6, 1932ko bigarren hiruhilabetea; 46- 47 or. “Lo que se enseña en las escuelas superiores de arquitectura”, in AC, 13, 1934ko lehen hiruhilabetea; 13 or.

eraikinen zentsura, agerian utzi nahi zuen errejimen berriak ez zuela aldaketa politikoarekin bat egiten zuen arkitektura bidezko imajina, eta GATEPAC-ek aldarrikatzen zuen modernitatea kontuan hartzeko aukera izan zatekeela.

AC aldizkariaren orrialdeetan, *Sociedad de Artistas Ibéricos* taldearen *Arte* buletinean, edota Tenerifeko *gaceta de arte*-n, garaiko beste argitalpenetan bezala, errepublikaren gobernuari kultura eta bizitza modernoarekiko konpromesua eskatu zitzaion, eta baita artearentzako, hezkuntzarako, eta hiria eta etxebizitzaren antolakuntzarako hobekuntzak ere. 1931eko maiatzaren 24ean, Aizpurua eta Mercadalek egin zuten bileran, hitzartu zuten langileentzako etxebizitzak eta klubak, zine herrikoiak, eskolak eta antzeko gizarte gaiak lantzen zituzten erakusketak eta hitzaldiak antolantzea ohargarria izango litzatekeela, “gobernua interesatzeko proletargoaren aldeko erabaki erradikalen onarpenean”<sup>32</sup>.

AC, erakusketa, hitzaldia eta beste hedabideetan izan zuen presentzia garrantzitsuari esker, ez zen arkitektura berriaren propaganda tresna hutsa izan. Horrekin batera, erakunde publiko berriek bere burua moderno aldarrikatzen zuten arkitektoei egin ahal zizkioten enkarguak aurkeztu zituen ere. Eta hala, Bartzelonan GATCPAC-eko arkitektoek 1932an Frances Macià-ren lehendakari-tzarekin eratu zen Generalitat-eko gobernuarentzat lan egin zuten. Taldeak zituen hiria eta bere zerbitzuak antolatzeko proposamenak, garaiko arazo larrienei erantzun bat ematearekin batera, hasiberria zen gobernuari modernitate eta berritasun imajina emateko elementuak izan ziren. Horretarako AC-k, presaka eta ia irentsi gabe, CIAM-etan antolatu ziren hainbat proposamen bereak egin zituen. Nagusiki Sert eta Vallejo egon ziren 1930ko azaroaren 27 eta 29 bitartean Bruselasan antolatu zen kongresukoak. Bertan hiria arkitektura berriaren proposamenak esparru nagusi gisa aurkeztu zen. Le Corbusierrek adierazi baitzuen moduan, hiriaren antolakuntza tradizionalaren aldaketak ahalbideratuko luke bakarrik proposamen arrazionalisten garapena. Hortaz, etxebizitzarekin batera Bruselako kongresuak Hiri Funtzionala ondorengo CIAM-etan landu beharreko gai bezala aurkeztu zuen, zehazkiago hasiera batean Moskun ospatu behar zen hurrengoan, eta GATEPAC taldearen babesean, 1932ko martxoaren 29 eta 31 bitartean Bartzelonan egin zen prestakuntza bileran. Generalitateko gobernuak parte batean finantziatu zuen kongresura, Victor Bourgeois, Le Corbusier, Sigfried Giedion, Walter Gropius, Cornelius Van Eesteren eta CIRPAC-eko beste kide batzuk joan ziren, hiria antolatzeko modu berriak proposatzeko eta honen kudeaketa zegokion Kataluniako agintariengan eragin izateko.

Horregatik ez da estraineakoa, AC aldizkariaren lehen zenbakitik argitaratu ziren proiektuek, ordurarte hiria antolatu eta kudeatu zuten modua kritikatu, eta etorkizuneko hiriarentzako plan orokor bat planteamendua izatea, hots, *Etorkizuneko Bartzelona*-rena. Funtsean, hiria kudeatzeko markoa ari ziren proposatzen, bertan etxebizitza, hezkuntza, osasungarritasun erronkei eta aisialdia, zirkulazioa edo lanareko espazioen kokapenaren arazoei aurre egiteko proposa-

---

32. 1931eko maiatzaren 24ean GATEPAC Grupo Centrok Bartzelonari zuzendutako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.



Josep Lluís Sert, Josep Torres Clavé, Joan Baptista Subirana. 1933. Casa Bloc. Barcelona. (Iturria: AC, 11 aldizkariaren portada).

menak lekutzeko. Aldizkaria arkitektoen entseguen erakusleihan bihurtu zen, oso gutxitan eta ia salbuespen moduan Kataluniako erakunde publikoentzat eraiki zituztenekin bat zetozenak, besteak beste, Serten Palau-solità i Plegamanseko Lehen Hezkuntzarako eskola (1933), Casa Bloc izeneko gizarte etxebizitzak (1933-37) edo Tuberkulosiaren aurkako Erietxea (1933-37), azken biak Sert, Torres eta Subirana Bartzelonan eraiki zituztenak. Izan ere hogeigarren hamarkado hasierako krisialdi ekonomikoak eta ezegonkortasun politikoak erai-kuntza gelditu baitzuten, hargatik Sertek 1936ean, *Fronte Popular*-rak irabari ostean esan zuen:

espero dugu egoera politikoaren aldaketak hemen GATEPAC-rentzat mesedegarria izatea, baliteke lanean hainbeste urte ibili ostean asko proiektatutako zerbait egi-tea<sup>33</sup>.

33. 1936ko martxoaren 18an Sertek Mercadali zuzendutako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATEPAC. Korrespondentzia.

Aldizkariaren orrialdeetan proposatutako proiektuek komuneko eraikuntza modu eta teknika berriak agertzen zituzten, eta baita, estandarren erabilera, teoriarik eraikuntzaren prezioa merketu beharko lukeena. Gainera estandarra hiriaren, etxearen, eskolaren edota edozein espazioa eta altzairuen oinarritzakoa eta minimoa zen modulazio bezala ulertu zen ere; berau txertatua zegoen gainorantzeko espazioekin erlazionatua zegoena. Alabaina, praxian arkitektoak jada egituratutako hirira moldatu behar izan ziren burgesiarentzako formatu ezberdineko etxebizitzak eraikiz: familiabakarrekoak (Sixte Illescasen Vilaró Etxea, 1929- 1930), auzo etxeak (Serten Muntaner Etxea, 1929-1930), edo bigarren egoitzak (Sert eta Torresen aste bururako etxeak, 1934).

Bere maisuen ereduak eta arkitektutura berriaren ikonografia jarraitu zuten, batere ekonomiko edo funtzionalak ez ziren proposamenetan. Torres Clavék Bartzelonako *Mirador* aldizkarian 1930an aitortu zuen moduan, arkitektura berriak, ezer baino lehen, behar estetiko berri bati egiten omen zion men. Hortaz ez da harrizkoa Germá Rodríguez Ariasek Bartzelonako Paris kalean egin eta AC-n argitaratu zen auzo etxean, fatxadak proposamen formal berriekin bat egitea, eta publikatu ez zen oinplanoan etxebizitzaren erdiak barne patio baten arabera antolatzea<sup>34</sup>. Halaber taldearen aldizkaria saiatu zen, faltsuztat zuen eta nagusiki modernotasuna presente egon zen arkitektura eta altzarigintza déco-aren araberrako proposamenak ez argitaratzen. Hori dela eta CIRPAC-eko zein GATEPAC-eko eta inguruko hainbat kideren proiektuak, besteak beste André Lurçat, Rober Mallet Stevens, Sixte Illescas, Josep Torresen eta beranduago euskal taldean sartu ziren Luis Vallet eta Joaquín Zarranzenenak ez ziren publikatu<sup>35</sup>.

#### Halako formak AC-k zioen moduan

dekoratzaileen katalogo guztietan topatzen ditugu 'jantoki, logela edo bulego moderno' tituluarekin, eta ondoko orrialdean Luis XIV, Chipendale edo espainiar Errenazimentua<sup>36</sup>.

Izan ere altzairugintzak eta arkitekturak, modu guztietako joerak hautatu baitzituen, garaiko kultuaren izaera eklektikoaren ezaugarri izan zena. Baina GATEPAC-ak garaiko arkitektura aniztasuna agertzea baino, Aizpuruak zioen moduan argitalpen "oso purua" egiteko interes handia zuen. Luis Gutiérrez Soto

---

34. TORRES CLAVÉ, Josep, "¿Qué penseu de l'arquitectura moderna", in *Mirador*, 63, 1930ko apirilaren 10ean, 7 orr. "Viviendas en alquiler en la calle París- Barelona. Arquitecto: G. Rodríguez Arias", in *AC*, 15, 1934ko hirugarren hiruhilabetea; 30 or.

35. "Un falso concepto del mobiliario moderno", in *AC*, 15, 1934ko hirugarren hiruhilabetea, 13. "La evolución del interior en los últimos 50 años (1880- 1930)", in *AC*, 19, 1935eko hirugarren hiruhilabetea; 17 or. "Casino de Irún. Arquitecto: D. Luis Vallet", en *Cortijos y Rascacielos*, 1932ko negua; 8-9 or, "Un grupo de cuatro viviendas en Irún. Arquitecto: D. Luis Vallet", in *Cortijos y Rascacielos*, 1933ko uda; 28- 32 or. "Casa para D. Luis Rodríguez Gal, en Irún. Arquitecto: D. Luis Vallet", in *Cortijos y Rascacielos*, 1931eko udaberria; 144- 147 or. GARITAONAINDÍA de VERA, José Ramón. *Joaquín Zarranz Pueyo. Hacia una verdadera arquitectura racional*. Iruñea: Universidad de Navarra. Escuela Técnica Superior de Arquitectura, 1997; 35 or. Doktore Tesia.

36. "La evolución del interior en los últimos 50 años (1880- 1930)", in *AC*, 19, 1935eko hirugarren hiruhilabetea; 17 or.



Madrileko arkitektoaren aireportua moduko proiektuarentzat lekurik ez zegoen aldizkaria zen. “Nik deitzen dudan **modernotasun faltsua da**”- zioen arkitekto gipuzkorrak- “desorientatzeko baino ez du balio (...) pozoingarria da”. Nahiz eta arkitekto kataluniarrek iritzi berekoak izan, Aizpurua ohartarazten zuten: “hain puritano bagara denbora gutxian orijinala agortuko dugu”, modernotasun faltsua baitzen guztiek praktikatzen zutena<sup>37</sup>.

AC aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu ostean, taldeak buletinaren difusio kanpaina hasi zuen. Guztira aurreneko alearen bi mila zenbaki banatu ziren, gehienak Estatuko liburudenden artean, eta baita hartu emanak ezarri zituzten mundo osoko arkitekto, eraikitzaile, injenieri, industrial, iragarle, zirkulu artistiko, artista famatu, egunkari eta aldizkarien artean ere. Magazina Estatuko geografia parte nagusi batean egoteaz gain, Argentina, Alemania, Austria, Belgjika, Brasilen, Bretaina Handian, Estatu Batuetan, Frantzia, Grezian, Holandan, Italian, Japonian, Kolonbian, Kuban, Mexikon, Perun, Polonian, Suedian, Suitzan, behialako Txekoslovakian, Txilen, Uruguain eta Venezuelan egon zen. Hargatik Karel Teige arkitekto txekiarrak zioen AC-ren lana aipatzekoa zela Estatuko arkitektura garapenaren artean<sup>38</sup>.

Buletina estatu kanpotik ezagun izatea, bertan argitaratu ziren zenbait proiektu Buenos Aireseko *Nuestra Arquitectura* aldizkarian (1929- 1937) edo 1932an hasi zen *De8 En Opbouw* holandarrean editatzea erraztu zuen<sup>39</sup>. Era berean, buletinak antzeko helburuak zituen argitalpenekin lan egin zuen, eta hala Eduardo Westerdahlek zuzentzen zuen Tenerifeko *gaceta de arte*-k arkitektura arrazionalistaren aldeko artikulua kaleratu zituen. AC-n, *gaceta de arte*-n eta bestelako abanguardiak aldizkarietan agertzen ziren arte adierazpenak bere lekua izan zuten ere, batez ere, argazkigintza, zinema, eskultura eta pintura, Serten laguna zen Joan Mirórena nagusiki<sup>40</sup>. 1932an Sertek berak, Joan Prats eta Sebastiá Gaschekin batera, A.D.L.A.N. (*Amics de l'Art Nou*), abanogar-

---

37. 1931eko ekainaren 25eko eta uztailaren 1eko Aizpurua gutuna eta Akta Liburua. Zuzendaritza- bartzordea, 1933ko abenduaren 28ko eta 1934ko martxoaren 1eko GATCPAC-en sesioak. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC.

38. TEIGE, Karel. *The Minimum Dwelling*, Cambridge (Mass.). London: The MIT Press, 2002 (1932), 86 or.

39. 1933ko otsailaren 2an *Nuestra Arquitectura*-k idatzitako gutuna. 1932ko maiatzaren 18an Cornelius Van Esterenek *De8* aldizkariaren izkiriaturako eskutitza. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia. Halaber kontsulta daiteke: ALCOLEA, Rafael A. “De Ac a De 8 En Opbouw: la casa Lovell Health”, in *El GATCPAC. y su tiempo. Política, cultura y arquitectura en los años treinta. Actas del V Congreso Fundación DOCOMOMO Ibérico*. opus cit.; 213-218 or. “De8 en Opbouw”, in *D.C. Revista de crítica arquitectónica*, 13-15, 2005eko urria; 38-53 or.

40. “Fotografía y cinematografía”, in *AC*, 1, 1931eko lehen eta bigarren hiruhilabeteak, 28- 29 or. MORENO VILLA, José. “El poeta Morena Villa pintor”, in *AC*, 3, 1931eko bigarren hiruhilabetea; 30-31 or. WESTERDAHL, Eduardo. “Wili Baumeister. Pintor”, in *AC*, 16, 1934ko laugarren hiruhilabetea; 40- 41 or. GASCH, Sebastián. “Dibujos de Ángel Ferrant”, in *AC*, 4, 1931eko laugarren hiruhilabetea; 28- 29 or. FERNÁNDEZ, Luis. “El escultor González”, in *AC*, 5, 1932ko lehen hiruhilabetea; 30- 31 or. FERNÁNDEZ, Luis. “Hans Arp y Madame Arp”, in *AC*, 6, 1932ko bigarren hiruhilabetea; 42-43 or. GASCH, Sebastián. “El escultor americano Calder”, in *AC*, 7, 1932ko hirugarren hiruhilabetea; 43 or. CASSANYES, M.A. “Joan Miró: el extraordinario”, in *AC*, 18, 1935eko bigarren hiruhilabetea; 40- 41 or.

dia taldea sortu zuen, Westerdahli esker Tenerifera (1936) eta Guillermo de Torre, Ángel Ferrant, José Moreno Villa, Ernesto Giménez Caballero eta Ramón Aníbal Álvarez, Luis Blanco Soler, Luís Moya eta Manuel Sánchez Arcas arkitektoen laguntzarekin Madrilera hedatu zena (1935- 1936). Hortaz ez da harritzekoa AC-en agertu ziren hainbat arte aipamen A.D.L.A.N.-ek antolatatu zituen erakusketen kronikak izatea, edota GATEPAC-eko talde kideek egiten zituzten arkitektura ez bezalako lanenak<sup>41</sup>.

Buletinaren lehen zenbakian Aizpuruaren argazki bat agertu zen<sup>42</sup>. Arkitekto gipuzkoarrak aldizkaria honen 200 ale jaso zituen, bere kideak Luis Vallejok 90 inguru eta beste hainbeste izena emateko buletin, aldizkaria Euskal Herrian eta Estatuko Iparraldean bana zezaten. Mercadal berriz AC-ren banaketa, izen emate eta publizitateaz arduratu zen Madrilan eta inguruetan, Inchausti Edizioak lagun egin zion lanean.

Aldizkariak espero ez zuen harrerara izan zuen. Hori dela eta bigarren zenbakia 1.500 aletara pasatu zen. 1931eko uztailan, buletinak 150 harpidedun zituen, 80 Madrilan, 62 Bartzelonan eta 8 Bilbon. Mercadal harpideen zenbakia oso txikia zelako kezu zen, eta Aizpurua bezala ez zegoen ados GATEPAC-eko arkitektoek proposatu zuten katalaneraren erabilerarekin, harpidedunak uxatze-



Jose Manuel Aizpurua. 1930. Argazkia. (Iturria: AC, 1 aldizkaria).

41. BONET, Juan Manuel. *Diccionario de las vanguardias artísticas en España 1907- 1936*. op. cit.; 26 or. GRANELL, Enric. "ADLAN", in *AC La revista del G.A.T.E.P.A.C, 1931- 1937*. op. cit.; 114-12 or.

42. Argazki bera argitaratu zen: "Vida, objetos: nueva fotografía", in *La Gaceta Literaria*, 80, 1930eko apirilak 15; 11 or.

az gain, Zaragozan markatu zen izpiritu internazionalista eta ordezkari ziren CIRPAC-aren borondatearen kontra zihoalako<sup>43</sup>.

Denbora aurrera joan ahala, lehen zenbakiak agortzen joan ziren, eta 1931eko urrian 250 harpidedun zituen aldizkariak, eta 1993eko ekainean 350. Aleren bat jaso zuten hainbatek, nahiz eta buletina interesatu, ordainagiria jasotzean bueltatu zuten, agian urte baterako hamar pezeta ordaintzea garestiegia iruditzen zitzaielako. Nahiz eta beste batzuek ezer ez esatea erabaki eta aldizkaria musutruk jasotzen jarraitu zuten, administrazioak ale gehiago ez bidaltzea erabakitzen zuenerate. Aldizkaria ez ordaintzea nahiko ohikoa izan zen, eta baita sekulan garaiz ateratzen ez zen aldizkariari kexak ere: "hemengo harpidedunen erreklamazioak daude, hauek beste dira, ez dakit zer esan jada"<sup>44</sup>.

Harpidedun gehienak arkitektoak izan ziren, bai eskarmentu handikoak zein gazteagoak, eta guztiak hogeitahamargarren hamarkadan Euskal Herriko hiri eta herrietan gertatu zen aldeketan estetikoaren protagonistak izan ziren. Euskal harpidedun artean aipatzekoak dira Antonio Gezala eta Jose Maria Uzelai pintore bizkaitarrak, eta baita Aizpuruaren lagunak ziren Juan Cabanas Erausquin eta Jesus de Olasagasti pintoreak. Horiekin batera industrial, injenieri, mediku eta partikularrek aldizkaria bere etxean jaso zuten, agian arkitektura berriaz gain berau dekoratzeko moduak interesatuko litzaizkiotelako. Enrique Panera eta Roque Manterola, AC-k aldarrikatzen zuen estetika jarraituz Bilbon hainbat etxe egin zituzten eraikitzaileak ere harpidedunen artean zeuden; eta baita garaiko arkitekto aipagarrienak ere: Emilio de Apraiz, Jesus Guinea, Jose Luis Lopez de Uralde eta Domingo de Echevarría aparejadorea Araban; Eugenio de Aguinaga, Ramindo Alberdi, Luis de Astiazaran, Eduardo Lagarde, Ramon Martiarena, Jose Martinez de Ubago, Ignacio Mendizabal, Florencio Moco-roa, Juan de Olazabal, Jose Antonio Ponte, Miguel Antonio Setien, Domingo Unanue eta Luis Vallet gipuzkoarrak; Serapio Esparza, Vicente Saralegui eta Joaquin Zarranz nafarrak, eta baita C.E. Amann, Ricardo Bastida, Tomas Bilbao, Manuel I. Galindez, Pedro Guimon, Juan de Madariaga eta Estanislao Seguro-la bizkaitarrak.

Harpidedunak ez ziren izan aldizkaria eskura izan zuten bakarrak, Nicolas de Lekuona pintore eta argazkilariak ere buletina irakurri zuen. Kontuan izan behar dugu aldizkaria Estatuko hainbat biblioteca eta liburudendetan egon zela. Bilbon egoitza zuen eta 1930an sortu zen Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Oifizialaren liburutegian bazegoen, *Arquitectura, L'Architecture d'aujourd'hui*, edo *Bau-meister* moduko aldizkariekin batera. Halaber posible zen AC erostea Bilboko *Librería y Papelería Vizcaína*, *Librería Moderna* eta *Librería Universal*-en, Donostiako *Librería Internacional* eta *Nueva Librería*-n, Iruñeako *Librería Leoz Goñi*-n eta Estatuko eta Europako beste askotan<sup>45</sup>.

---

43. 1931eko abuztuaren 5ean Mercadalek Torresi zuzendutako gutuna. 1931eko urtarrilaren 31ean Aizpuruak Torresi idatzitako eskutitza. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

44. 1933ko maiatza- ekainean? Mercadalek a Torresi zuzendutako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

45. "Llibre de liquidacions amb llibrerías i distribuïdors". Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. MOYA, Adelina. op. cit.; 110 or.

AC-ren finantziazioa aldizkariaren agertzen ziren iragarki eta salmentekin batera, taldekideek ordaintzen zituzten kuotei esker egiten zen. Ohikoak ziren Bartzelonak Madril eta Donostiari egiten zizkion erreklamazioak dirua galtzen zuen argitalpenerako beharrezkoak ziren ditu kuotak ez ordaintzeagatik. Egoera honek kideen artean, eta bereziki Aizpurua eta Torresen artean tirabirak sortarazi zituen eta baita buletinaren kalitatean eta banaketan ere<sup>46</sup>. Alabaina aldizkariarekin aurrera jarraitu zuten, harpidedunekin eta iragarkiekin zenbaki guttietan negatiboa izan zen saldoa orekatzeko esperantzarekin. Nahiz eta Aizpurua eta Mercadalek aldizkariaren edukietarako proposamenak egin, gehienak taldekataluniarrarenak ziren, nagusiki Bartzelonakoak ziren iragarkiekin finantziatzen zena. Oso eskasak izan ziren euskal iragarleak AC-n, Donostiako *Aldazabal* y *Laca* eta Irungo Ramon Gaztelumendiren aroztegi tailer mekanikoa noiz edo noiz iragarri ziren, eta maizago Bilboko J.A. Muguruza, eraikuntza metaliko, itxiera biribilduak, egurrezko pertsinanak, apal metalikoak, altzairuzko altzariak eta lehikoak, eta itxiera hermetikodunak egin zituenak.

Egoera ekonomiko honen aurrean, 1933an Madrileko Edarba argitaletxeak, eta AC-ren banaketaz arduratzen zen Inchausti kudeatzen zuena, taldearen inguruko liburu bat editatu, eta bere buletinaren argitalpenaz arduratzea proposatu zuen, *Construcciones y decoraciones modernas* deituko zena eta berritasun guztiak bilduko zituenak eta ez soilik GATEPAC-arenak. Behin baino gehiagotan AC- ez axolagabe agertu zen Aizpuruak, proposamenarekin bat egin zuen, eta Edarbak hilerio aldizkari bat argitaratzen zuen bitartean, taldeak bai publikoarentzat eta beraientzat merkeagoa izango litzatekeen Le Corbusier koraboratzaile zuen



Hijos de J.A. de Muguruzaren iragarkia. (Iturria: AC, 6 aldizkariko publizitatea).

46. "Resums econòmics de la revista AC" eta 1933ko uztailaren 13ko akta. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Akta Liburua. Zuzendaritza - Bartzodea.

Pariseko *Plans* (1930- 1933) antzeko bihilabetekaria bat argitaratzea proposatu zuen, hori bai “oso aratza” izango litzatekeena. Baina Kataluniako taldearentzat proposamena “onartezina eta (ia desonestoa)” zen. Torres AC-rekin jarraitzearen alde agertu zen, bere ustez akatsa litzatekeelako besteek berea egitea kostatu zitzaizen aurreneko ahalegina, jada argitalpena sendotzen hasia zenean; eta horretaz gain komenigarria zitzaiekeelako “soilik beraiena” zen aldizkaria izatea, edozein kanpaina egin orduko inoren aurkakotasunik ez izateko<sup>47</sup>.

AC-k aurrera jarraitu zuen nahiz eta egoera ekonomiko kaskarrak, eta Torres-ek ia bakarrik arduratzen zen proiektuak eragin zuen buletina agertzea “nahi edo ahal duenean, hiru hilabetero, jendeak ez daki ezta esistitzen den ere edo zenbaki berria eskatzeaz nekatu eta ez erosten bukatzen du”<sup>48</sup>. Egoera honi aurre egiteko 1934an Torres-ek irakurlegoa handitzeko hainbat propaganda kanpaina hasi zituen. Horretarako mundu osoko arkitekto elkargoekin harremanetan jarri zen, nagusiki gaztelaniaz mintzatzen ziren herrialdeetakoekin, aldizkariaren ale bat bidaltzeko. Handik gutxira Edarbak *Nuevas Formas* aldizkaria argitaratu zuen, nahiz eta eskatu GATEPAC-ko kideen laguntza izan ez zuena. Taldearen monografia berriz, 1935erarte atzeratu zen iragarle falta eta taldekideen ezaxolakeria zela eta. Aizpurua eta Mercadalen haserrea piztu zuen, liburuan biltzen ziren hirigintza, etxebizitza, eskola, ikuskizun areto, osasunetxe, denda, klub, barne arkitektura eta altzarrietako argazkien kalitate kaskarrak eta taldeak igorritako testua mutilatu izanak<sup>49</sup>. Alabaina argitalpenak, Edarbak 1933 eta 1936 bitartean egin zituen beste profesional nabarmenen monografiekin batera, Estatuan egiten zen arkitekturaren berri ematera lagundu zuen<sup>50</sup>.

#### 4. GATEPAC-EKO IPARRALDEKO TALDEA

GATEPAC-eko aldizkariak beste hainbat elementurekin batera lortu zuen, hasieran eraiki ez zen, arkitektura berri baten imajina bizirik mantentzea. Josep Lluís Sert, Kataluniako taldearen buru bezala eta Josep Torres Clavé, AC aldizkariaren arduradun gisa, Jose Manuel Aizpurua eta Fernando García Mercadalen arteko posta- trukea, talde bezala funtzionatzeko borondaterik ez zuen GATEPAC-

---

47. 1933ko uztailaren 21ean Edarbak Mercadali idatzitako gutuna. 1933ko uztailaren 21ean Ekialdeko Taldeak Mercadali zuzendutako gutuna. 1933ko urriaren 17an Aizpurua idatzitako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia eta “Gestions per a la publicació del llibre d'Edarba Arquitectura Contemporànea III”.

48. 1933ko azaroaren 8an Aizpurua Torresi zuzendutako eskutitza. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

49. Arkitekto gipuzkoarren Donostiako Nautikoa (1929), Sacha gozotegia (1930), Ibarako eskolak (1931), Donostiako turismo pabiloia (1931), Hondarribiako etxe proiektua (1932) eta Bilborako eskola proiektua (1932) argitaratu ziren.

50. 1933an Secundino Zuazo, Pedro Muguruza, Manuel María de Smith eta Luis Blanco Soler eta Rafael Bergamín inguruko liburuak argitaratu ziren. 1934an Víctor Eusa, Genaro de Nó eta Javier Goerlich- Liéori dedikatutakoak. 1935ean: Ricardo Pérez eta Ricardo Bastida eta Emiliano Aman neta 1936an Luis Sanz de los Terrereros, Regino eta José Borobio eta Manuel eta Juan Manuel del Bustoren txanda izan zen.

ren kideen arteko erlazioa mantendu zuen batasun puntu garrantzitsuena izan zen, bakarra izan ez balitz. Esistitzeko guztien finantziarioa behar zuen aldizkariaren argitalpena izan baitzen GATEPAC-ren egiteko bakarra, eta baita korrespondentzian agertzen den ardura nagusia. Hortaz, 1932an Bartzelonan egin zen III. CIAM-a prestatzeko bileran “gutziz beharrezkoa da jaun horieri antolatuta ez gaudelaren ideia ematea”<sup>51</sup>.

Horretarako 1932ko martxoaren 30ean, taldea eratu zenetik lehen eta azkenengo aldiz bildu ziren hiru azpitaldeetako ordezkariak<sup>52</sup>.

Aurretik, 1931eko maiatzaren 24ean Madrilen Aizpurua eta Mercadal elkartu ziren, Kataluniako arkitektoak gabe, GATEPACeko bilera bezala deitu zutenean. Bertan erabaki zuten Bartzelonako taldeak Ekialdeko Talde izena erabil dezan GATEPAC-ren ordezkari. Horretaz gain, aldizkariaren edukia eta formatuaren inguruko iradokizunen bat egin, eta baita taldea pizteko eta ezagutzera emateko zenbait proposamen egin ziren, besteak beste, lehiaketetan parte hartu, erakusketak eta hitzaldiak antolatu, eta baita modu puntualean taldearen zerbitzuak dohainik eskaintzea.

Aldizkariaren aurreneko zenbakietan Mercadal interesaturik agertu zen, eta bera izan zen GATEPAC eta CIRPAC-en arteko erlazioak agertzen zituen atal bat sortzea proposatu zuena. Mercadal izan baitzen Estatuan CIRPAC-en ordezkari eta hori zela eta Le Corbusier eta Giedionekin kontaktuak mantentzen jarraitu zuen. Handik gutxira Josep Lluís Sert, Giedionek “Kataluniako arkitekturaren etorkizuneko diktadore”<sup>53</sup> bezala izendatu zuena, arkitektura berriaren aldeko eragile nagusienean eta baita Giedion eta Parisen lan egin zuen Le Corbusier-en harreman gizonen bihurtu zen. Eta hala Bartzelonako arkitektoak, Mercadalek orduarte, jada joan ez zen 1930eko Bruselako CIAM-erarte, izan zuen lidergoa berea egin zuen. Izan ere, Mercadalek arkitektura berriaren alde izan zuen aktibitatearen ostean, GATEPAC-ekiko eta CIRPAC-ekiko agertu zuen jarrera, isiltzuna, interes eza eta utzikeriak, taldekideekin arazoak piztu zituen.

Egia bada Mercadalek, arkitektura ulertzeko modu tradizionalago bat nagusi zen Madrileko taldea bultzatzeko zituen arazoak azpimarratu zituela; hasieratik GATEPAC-etik ere apuntatu zen Erdiko Taldea aktibatzeke eta gainoratzeko azpitaldeekin harremana mantentzeko zuen gogo gutxia. Madrileko taldea desegin eta Mercadal, Estatuko hiriburuan Ekialdeko Taldeko ordezkari izatea pentsatu zen ere. Aizpurua Erdiko Taldea aktibatzen saiatu zen 1932ko udan etxebizitza erakusketa bat antolatuz, eta neguan eskolen inguruko beste batekin. Haatik,

---

51. 1932ko otsailaren 19an Bartzelonan Aizpuruari zuzendutako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATEPAC. Korrespondentzia.

52. 1932ko martxoaren 30eko espainiar taldearen bilera akta. Bertaratutakoak: Mercadal, Aizpurua, Sert, Armenogu, Perales, Subirana, Alzamora, Torres, Rodríguez eta Churruca. Arxiu Històric COAC. Fons GATEPAC. Akta Liburua. Zuzendaritza - batzordea; 33 or.

53. GIEDION, Sigfried. *Escritos escogidos*, Murtzia: Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos. Librería Yerba. Cajarmurcia, 1997; 106 or.

ezezkoa zen “berarekin ezertan kolaboratzea”. Horren adibidea izan daiteke 1932an GATEPAC-eko ordezkariak Donostian taldea berpizteko egin izan nahi zuten bilerara joateko ezetza, edo 1933an Atenasen ospatu behar zen IV. CIAM-era ez joateko eman zuen erantzuna: “GC-a [Erdiko Taldea], ez da ‘klasikoen’ txangoan agertuko, nik Grezia ezagutzen dut jada. Dibertitu eta ondo pasa”<sup>54</sup>. Hargatik Giedionen haserrea eta CIRPAC-eko ordezkari bezala kargugabetzeko asmoa, Aizpuruak esan zuen “bera baztertzea beharrezkoa bada baztertzen da”, edota Erdiko Taldearen kanporatzea begiestea kideen proiektuak behin baino gehiagotan, hitzartu zutenaren kontrara, aurrenik *Arquitectura* aldizkarian argitaratzeagatik AC-n baino<sup>55</sup>. Hala gertatu zen Felipe López Delgadoen Figaro Antzokiarekin “Espainian GATEPAC-ak defenditzen dituen printzipioen baitan, egin den lehen ikuskizun aretoa”, Giedionen artikulua batekin edota Aizpuru eta Labayenen etxebizitza eta Madrilerako egin zuten Arte Moderno Museorako proiektuekin<sup>56</sup>. Hori dela eta AC aldizkariak arkitekto gipuzkoarren museoari eman zion garrantzia, lehen saria irabazi zuen Mercadalen proposamenaren gaitetik, eta jada *Obras*, *Cortijos y Rascacielos* eta *Arquitectura* aldizkarietan argitaratu zuena, bere beste hainbat proiektu buletin hauetan eta *Viviendas* eta *Nuevas Formas*-etan agertu zuten moduan<sup>57</sup>. Gainera bai Mercadal eta bai Erdiko Taldeko kideen proiektuak, AC aldizkariaren aurreneko zazpi zenbakietan – 1932ko hirugarren hiruhilabeterarte- gutxitan agertu zirenak, hurrengo aleetatik ia desagertu ziren<sup>58</sup>.

Halaber eta nahiz eta hala ez izan, Aizpuru kexu zen bera salbu, gainerakoez ez zutelako talde bezala sinatzen, eta horregatik beharrezkoa ikusten zuen GATEPAC-eko bilera bat egitea,

---


54. 1932ko irailaren 27an Aizpuruak Bartzelonari idatzitako gutuna. 1933ko ekainaren 16an Mercadalek Serti zuzentutako eskutitza. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

55. 1933ko martxoaren 7an eta 1933ko azaroaren 22an Aizpuruak idatzitako gutunak eta 1932ko abenduaren 8an Iparraldeko Taldeak Serti zuzendutako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

56. “Fallo del Concurso Nacional de Arquitectura, 1931”, in *Arquitectura*, 154, 1932ko otsaila; 48- 60 or. “Cine-Teatro ‘Figaro’. Madrid. Arq.: Felipe López Delgado”, in *AC*, 5, 1932ko lehen hiruhilabetea; 18-24 or. GIEDION, Sigfried, “El arquitecto Marcel Breuer”, en *Arquitectura*, 155, 1932ko martxoa; 82-90 or. “IV Concurso Nacional de Arquitectura. Tema: un Museo de Arte Modern en Madrid. Proyecto de los arquitectos señores Aizpúrua y Labayen”, in *Arquitectura*, 173, 1933ko iraila; 264 or. “Concurso para un museo de arte moderno. Proyecto presentado por los arqtcos: Aizpúrua y Labayen”, in *AC*, 13, 1934ko lehen hiruhilabetea; 32-34 eta 41 or.

57. GARCÍA MERCADAL, Fernando. “Una exposición de viviendas. Ejemplo digno de ser imitado”, in *Obras*, 13, 1932ko azaroa; 255- 260 or. “La vivienda del arquitecto García Mercadal”, in *Viviendas*, 8, 1933ko otsaila; 10- 15 or. “Colonia Residencia. Tres casas medianeras. Fernando Mercadal”, in *Cortijos y Rascacielos*, 13, 1933ko udazkena; 23- 27 or. “El proyecto y realización de la reforma de una tienda. Arquitecto: Fernando García Mercadal, ejecución: Alonso- Peinador, decoradores”, “Proyecto y realización de RETRA. Arquitecto: Fernando García Mercadal”, eta “Cinco proyectos del arquitecto García Mercadal”, in *Nuevas Formas*, 9, 1934; 486-487 eta 490- 492 or. “Algo más sobre la reforma interior de Madrid. Arquitecto: Fernando García Mercadal”, in *Obras*, 1935; 5- 14 or.

58. Bilboko Udalak antolatutako zituen eskola eta etxebizitza lehiaketeten salbuespenarekin, bederatzita eta hamaikagarren zenbakietan agertu zirenak.



Jose Manuel Aizpurua eta Joaquin Labayen. 1933. Arte Moderno Museoa (Iturria: © Arxiu Històric del Col·legi d'Arquitectes de Catalunya (GATCPAC)).

eta EZINBESTEKOA estatutuen argitalpena (...) gatepaketar guztiek bere eskubide eta betebeharrak jakin behar dituzte, atzerapenik onar ez dezakeen puntua da<sup>59</sup>.

Nahiz eta taldearen estatutu orokorrak idatzi, eta Kataluniako arkitektoek bere estatutu eta araudia izan, Estatuko kideenak ez ziren sekulan arautu.

Bartzelonako arkitektoak izan baitziren talde bezala lan egin zuten bakarrak. Horretarako erakunde publikoentzat lan egiteko esperantza izateaz gain, taldearen antolakuntza zorrotza ezartzea lortu zuten. Horren adibidea da hasieran astero eta gero hamabost egunero antolatzen zituzten bilerak, eskura zituzten baliabide ekonomikoak, lokala, aldizkaria (*GATCPAC Butlletí*), eta estatutu eta araudi propioak, 1930eko arazoaren 28an onartuak eta 1931ko maiatzaren 21ean berretsiak izan zirenak, hain zuzen ere taldearen lokala Bartzelonako Passeig de Gràcia 99an ireki zen egun berean. Lokalak propaganda funtzioa eta arkitektura eta altzarigintza berriaren bezeroak izan litezkeenei erakustearekin batera, eraikuntzara dedikatzen ziren profesioaletara zuzenduta zegoen bereziki. Hauekin bere proposamen berrien beharrei aurre egiteko, hots, materialak eta altzariak seriean produzitzeko asmoa baitzuten.

Taldearen aretoan bere produktuak erakusten zuten enpresek ordaindu behar zuten alokairua, bertan saltzen zenaren gaineko komisioa, gehi bazkideen kuota-arkitekto, ikasle zein industrialenak, GATCPAC-aren aktibitatea ahalbide-

59. 1934ko otsailaren 1ean Aizpuruak Serti idatzitako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.





GATCPAC taldearen lokala: Construcció i amoblament de la casa contemporània. 1931. Bartzelona (Iturria: © Arxiu Històric del Col·legi d'Arquitectes de Catalunya (GATCPAC)).

ratu zuen finantziazioa osatu zuten. Gainera 1933ko uztailaren 13an egin zen proposamenaren arabera, taldek kataluniarrak arkitektoen irabazien %1 eta lehiaketetan irabazitakoaren %2 ematen hasi zen CIRPACA-ari.

Nahiz eta bazkideen artean diferentziak egon eta taldetik kanpo egiten zuten lana bere bizibide nagusia izan, talde kataluniarrak zuen finantziazio eta antolaketari esker Bartzelonan eta Europako beste zenbait hirietan argitalpen, hitzaldi eta erakusketak prestatu zituzten, Mercadal eta Aizpuruaren miresmena lortuz.

Mila zorionak **prentsan irakurri dudan** taldearen aktibitate intentsuagatik (...)

esan zuen Mercadal-ek, eta baita gaineratu ere

zuen nazioarteko dinamismoa miresten dut (...), monumentu bat merezi duzue. Zuen eremu handiko bideen aurrean jartzea zaila da, eta hargatik ematen du batzuetan kontaktua galtzen dugula, batzuetan Pirinioen bestaldean egiten dituzuen aktibitateak direla eta, bestetan zuen isiltasunengatik, bestetan zeuen lan egite autonomoarengatik<sup>60</sup>.

---


60. 1934ko uztailaren 3an Mercadalek Torresi zuzendutako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

Aizpuruak beste hainbeste adierazi zuen esatean:

[...] egiten duzuen lanari inbidia diot eta nire laguntza bakarra adorea ematea da hemen natura bereko lana materialki ezin garatzeagatik eta soilik posible litzatekeena zuten moduko 8 edota 9ren laguntzarekin eta pentsatzea Madrilen elementu gehiagorekin zentzu honetan ez dutela ezer egiten<sup>61</sup>.

AC sortu zenetik, Iparraldeko Taldeko Aizpurua, Labayen eta Vallejoren proiektu gutxi batzuk argitaratu ostean<sup>62</sup>, 1932an Bilboko Udalak antolatutako Solokoetxeko etxebizitza eta 1933ko San Frantziskoko eskola lehiaketetara aurkeztu zituzten Juan de Madariaga eta Joaquin Zarranz kide berrien proposamenak argitaratu zituen. Tomas Bilbaok 1931etik aurrera udalean izan zituen kargu politikoaz baliatuz, arkitektura berriarekin bat zetozen eta euskal arkitekturaren garapenean berebiziko garrantzia izan zuten lehiaketen arduraduna izan zen.

Bilboko eskola lehiaketan lehen saria jaso zuten Juan de Madariaga eta Joaquin Zarranzaren proposamena, Iparraldeko Taldeko kideena bezala aurkeztu zuen AC-ek. Horretaz gain Juan de Madariaga Luis Vallejorekin elkarlanean udal etxebizitza lehiaketan jaso zuten bigarren saria eta Aizpurua eta Labayenen accesita "GATEPAC-aren garaipen berri" gisa hartu ziren ere<sup>63</sup>. Aldiz, lehiaketa irabazi zuen C. Emiliano Amannen proiektuari buruz ez zen ezer esan, nahiz eta epai-



Jose Manuel Aizpurua eta Joaquin Labayen. 1931. Solokoetxeko Udal Etxebizitzetarako proiektua. Bilbo. (Iturria: AC, 11 aldizkaria).

---

61. 1932ko abenduaren 8an Aizpuruak Serti idatzitako eskutitza. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

62. "Casa en Fuenterrabía", in AC, 6, 1932ko bigarren hiruhilabetea; 26 eta 54 or. "Pabellón de atracción y turismo, en S. Sebastián", in AC, 6, 1932ko bigarren hiruhilabetea; 27 or. "Edificio para las S.S.L. Bilbao", in AC, 4, 1931eko laugarren hiruhilabetea; 20 or.

63. "Nuevo triunfo GATEPAC", in AC, 7, 1932ko hirugarren hiruhilabetea; 47 or. Proiektuak hurrengo artikuluan argitaratu ziren: "Concurso de escuelas convocado por el Ayuntamiento de Bilbao", in AC 9, 1933ko lehen hiruhilabetea; 29- 40 or. "Soluciones presentadas por miembros del GATEPAC al concurso de proyecto para un grupo de casas en Bilbao", in AC, 11, 1933ko hirugarren hiruhilabetea; 34- 37 or.



C. Emiliano Amann. 1931-1933. Solokoetxeko Udal Etxebizitzak. Bilbo (Iturria: Bilboko Udal Etxebizitzetako Artxiboa).

mahaiaren erabakia kritikatzeko asmoa izan. Jarrera honek taldearen alderdikaria agerian uzten du, bere lanetan besteenetan baino interes gehiago zuena, nahiz eta gehienetan egin ez ziren proiektuak izan.

1933 eta 1934 bitartean, aldizkariak argitaratu zituen Aizpurua eta Labayenen proiektuak,- oinarritzko lan eskola eta arte modernorako museo bat,- aurreneko aldiz GATEPAC (Iparraldeko Taldea) bezala agertu ziren sinaturik, agian arkitektura berriaren inguruko euskal arkitektoen taldea hasteko gogo biziaren erakusgarri gisa<sup>64</sup>. Halaber 1933an Aizpurua, Eudardo Largarde eta osasun arkitekturaren espezialista zen Manuel Sánchez Arcas arkitektoekin batera, Donostiako ospitalea eraikitzeke antolatu zen lehiaketarako proiektua argitaratu zen epaimahaiaren erabakia kritikatzeko. Izan ere, osasun arkitekturaz sekulan egin ez zen monografiko bat prestatzeaz berebiziko interesa zuen Aizpuruarentzat, garrantzikoa zen taldeak zituen baliabide guztiak erabil zitzan bere ustez modu lotsagarrian lehiaketa irabazi ez zuen bere proiektua ezagutzera emateko, eta egituratu nahi zen Iparraldeko Talde berriarentzat lagungarria izan zedin<sup>65</sup>.

---

64. "Proyecto de escuela elemental de trabajo en Ávila. GATEPAC (G.N.)", in AC, 10, 1933ko bigarren hiruhilabetea; 26- 27 or. "Concurso para un museo de arte moderno", in AC, 13, 1934ko lehen lauhilabetea; 32- 34 or.

65. 1933ko irailaren 28an Iparraldeko Taldeak Torres-i zuzendutako gutuna. 1933ko abenduaren 28an Aizpurua Torres-i idatzitako eskutitza. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia. "Un fallo lamentable. El concurso de anteproyectos para el nuevo hospital de San Sebastián", in AC, 11, 1933ko hirugarren hiruhilabetea; 39 or.



Juan de Madariaga eta Joaquin Zarranz. 1933. San Franziskoko Udal Eskolak. Bilbo (Iturria: AC, 9 aldizkaria).



Juan de Madariaga eta Joaquin Zarranz. 1933. San Frantziskoko Udal Eskolak. Bilbo (Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia-Foru Artxiboa).



Manuel Sánchez Arcas, Jose Manuel Aizpuru eta Eduardo Lagarde. 1933. Donostiako ospitalerako proiektua (Iturria: © Arxiu Històric del Col·legi d'Arquitectes de Catalunya (GATCPAC)).

1933an taldeak jarraitzaile gehiago lortu zituen, guztira zortzi arkitekto gazte, lokal bat hartu eta elkarrekin lanean hasteko prest zeudenak.

Gatepac-eko euskal taldea hala geratu da eraturik. Donostiatik Aizpurua, Labayen, Lagarde, Vallet, Ponte, Olazabal, Baroja, Alberdi. Bilbotik Vallejo, Madariaga, Bilbao. Iruñeatik Zarranz.

Proiektu handi eta ilusio asko dituguidatzi zuen Aizpuruak Bartzelonara-

Euskadi guztirako baserri- eskolak, eskola gune, lan eskolak eta bigarren hezkuntzako institutuak egiten hasiko gara, gero herri garrantzitsuenen zabalgunee eta urbanizazio planoak egiteari ekingo diogu<sup>66</sup>.

Euskal taldeak CIRPAC-era igorri nahi zizkion Donostia inguruko urbanizazio lanak, eta horretarako Kataluniako arkitektoek Bartzelonarako egin zituzten ikerketen arau eta kopiak eskatu zituzten, nahiz eta praxian euskal arkitektoen hiri-gintzarako ardura kataluniarrena bezalakoa ez izan. Taldekidea ez zen Estanislao Segurok 1933an egin zuen Asuarako hiri satelitea, edo Aizpuruaren 1935ean Donostiarako Amara auzoaren zabalgunearen erreforma plana izan ziren CIAM-eko irizpideen arabera hiria ulertzeko proposamen bakarrak.

Arkitekto gipuzkoarrak Ekialdeko Taldeko barne araudia eta lokalaren funtzionamenduaren inguruko informazioa eskatu zion Bartzelonari ere, Euskadin antzeko ekimenak egin orduko aintzat izateko. Dirudienez Iparraldeko Taldeak bere estatutuak egin zituen eta Aizpurua zenbait industrialekin hitz egin zuen Donostian lokal bat irekitzeko asmoarekin, azkenik 1934ean Prim Kalean alokatu zutena<sup>67</sup>. Halaber Aizpurua AC-ren elkar trukez jasotzen zituzten aldizkariak igortzea eskatu zion Bartzelonari, bere arkitektura bulegoan jaso zituenak, *Architectural Forum*, *Architectural Record*, *Bauwelt- nosokomeion*, *Moderne Bauformen*, *Der Baumister*, *Des Werk*, *Monasshefte fur*, *Baukunst*, *Innen Dekoration*, *Cahiers d'art*, *Cuadrante* eta *Architectura* salbu, Atenea, Arkitektoen Elkargo, eta partikularren bidez jada lor zitaketenak<sup>68</sup>. Aldizkarietako interesa ezinbestekoa izan zen garaiko arkitekturaren garapenerako, askorentzat bere lan tresnan bilakatu baitzen, eta batzuek ezin baitzuten atzerriko azken berritasunik gabe lanean hasi.

---

66. 1933ko abenduaren 28an Aizpuruak Torresi idatzitako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

67. 1934ko otsailaren 1an Aizpuruak Torresi idatzitako gutuna eta 1935eko martxoaren 16an Jose Antonio Pontek idatzitako eskutitza. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

68. 1933ko irailaren 28an Iparraldeko Taldeak Torresi zuzendutako gutuna. 1933ko urriaren 17an eta abenduaren 28an Aizpuruak Torresi idatzitako eskutitzak. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia. Detalle gehiagorekin Labayen eta Aizpuruak erabiltzen zituzten aldizkarien berri ematen du: MEDINA MURUA, José Ángel. "La libreta de Labayen y Aizpúrua. Un antecedente de la influencia alemana en la arquitectura española", in *Modelos alemanes e italianos para España en los años de postguerra*. Iruñea: T6 Ediciones, 2004; 207-214.

1934an Aizpuruak Serti gutun bat idatzi zion Iparraldeko Taldeko arkitekto gipuzkoarren antolakuntza eta ekintzen berri emateko, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñean tartekatzen ziren Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren bileretan elkar ikusten ziren beste probintzietako profesionaleri erreferentziarik egin gabe. Egia bada, Vallejok familia izan zuenetik “galduta dago (...) ez du ezer egin”, Aizpuruak ez zion sekulan Madril eta Bartzelonako taldekideekin zituen erlazioen berri eman<sup>69</sup>.

euskal taldearen azkeneko bileran (...) karguak hurrengo moduan izendatu ziren  
ordezkaria: aizpurua  
idazkaria: ponte  
diruzaina: labayen  
liburuzaina: baroja  
AC-ren erredaktoreak: lagarde eta olazabal  
ordezkari industrialak: alberdi eta vallet  
erakusketa jarri nahi genuen avenida-ko etxea lanetan dagoenez, sorte handiarekin alokatu dugu gure studio ondoan etxe berean dagoen lokal bat hortaz helbidea bera da prim 32  
premia guztiarekin hasiko ditugu irun eta donostiako II hezkuntzako institutuen ikerketa  
eskertuko dizut gai honen inguruko material bibliografikoa baduzue lehenbailehen igortzea  
halaber onartutako akordioen arabera jasotzen dituzuen urtarrila eta otsailera hilabeteen aldizkariaren zain gaude  
(...) ikusi nire behialako irizpidearen arabera AC bihilabetekaria egiteko modua horretarako materiala baitugu.  
euskal taldeari gustatuko litzaioke cirpac-era donostiako ikerketa urbanistikoak bidaltzea (...)  
zure hitzaldiaren zain gaude (...) mercadali buruz ez dakit ezer eta nire aurrekoetan esaten nizunaren arabera beharrezkoa da gatepac-aren kongresu bat antolatzea hiru ordezkarien aurren<sup>70</sup>.

Alabaina 1934tik aurrera Aizpurua mutu geratu zen, eta 1935eko urte hasiera eta bukaera bitartean Madrilen gobernu kontserbakor berriaren Heziketa Publikoko Ministerioaren idazkariordetzako zerbitzu teknikoetan lan egiten egon zen bitartean, bere burua artikulatu jakin ez zuen eta sekulan eratu ez zen euskal taldeak nabaritu zuen. Arkitekto gipuzkoarrak ez zuen bere leku aldatzearen berririk eman, ez eta Bartzelonarekin mantentzen zuen korrespondentzia beste bati utzi, Katalunia eta Euskal Herriko arkitektoen artean zegoen komunikazio bide bakarra eten zelarik eta baita aldizkarian erredakzioarekiko laguntza. Egoera honek Bartzelonako eta Euskadiko arkitektoen artean tirabiraren bat zegoela pentsaraztera bultzatu zuen, eta hala Torresek egiaztatu zuen Iparraldeko Taldearen

---

69. 1934ko abenduaren 31ean Aizpuruak Serti idatzitako gutuna eta 1931eko ekainaren 3an Bartzelonak Vallejori zuzendutako eskutitza. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

70. 1934ko martxoaren 5ean Aizpuruak Serti zuzendutako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

antolakuntza ez da halakoa eta behin eta berriz eskatzen dut taldearen ekintzen berri ematea, eta korrespondentzia areagotzearen beharra. Esaidazu mesedez noiz izango dudan zin egindako materiala<sup>71</sup>.

Iparraldeko Taldearen itxurazko berrantolaketak itxaropen profesional eta bereziki ekonomikoak piztu zituen. GATEPAC-ren elkargune bakarra zen aldizkariaren finantza- arazoei aurre egiteko hain beharrezkoa izan zatekeen esperantza. Hargatik hainbeste tematu zen Torres Iparraldeko Taldearen kide berriekin harremanetan jartzeko. Modu honetan Bartzelonako arkitektoak jakin izan zuen, gehiengo ziren eta hurbilketa geografikoak erlazio estuagoa ahalbideratzen zuen arkitekto gipuzkoarren antolaketa. Hala mintzatu zen Labayen taldearen inguruan:

Sei arkitekto gara behartutako aldizkako kolaborazio erlazioak mantentzen ditugunak. Antza denez sei horietatik, bi Irunen bizi dira, beste bat Hondarribian, bat Tolosan eta bi Donostian eguneroko eta ohiko lan profesionalak egiten; hau behin eta berriz eta baita astuntasunez ahaleginak koordinatzen eta ohikoa eta erregularra den kontaktua lortzeko buruzagi baten gabeziari gehitzen badiogu, gure lanak izan behar lukeen baino garrantzi gutxiagokoa izatea du ondorio (...) Astean behin biltzen gara asteazkenero<sup>72</sup>.

Izenez soilik taldekideak zirenak, bere eguneroko lana egiten ziharduten, AC-ek aldarrikatzen zuen arkitekturarekin zer ikusirik ez zuten proiektuak burutzen, eta hala Juan de Olazabalek zioen:

Oraindik ezer berri egiten da hemen arkitektura garaikidearen inguruan eta horregatik ez dugu aldizkariarentzako material berririk. Bilbon Zarranz eta Madariaga San Frantziskoko eskolan lanetan jarraitzen dute aurreratuago izan ahala argazkiak igorriko dizkizuetela **suposatzen dut**<sup>73</sup>.

Iparraldeko Taldeko arkitekto gipuzkoarrak beste proiekturen batean egin zuten lan Labayen, Olazabal, Ponte eta Valleten Irungo Bigarren Hezkuntzako Institutuan kasu, ilusioz eta eraikiko zutenaren esperantzarekin mintzo ziren lana zen, baina AC-k argitaratu zuen proiektu gehiago bat baino izan ez zena<sup>74</sup>. Lagarde eta Aizpurua parte hartu zuten ere Madrileko umezurtzentzako egoitza eta eskola lehiaketan, hirugarren saria jaso eta *Arquitectura* aldizkarian argitaratu zena<sup>75</sup>, edota Donostiako Udalak onartu zituen hiri eskolak egiteko lehiaketen

---


71. 1934ko azaroaren 28an Torresek Aizpuruari zuzendutako ezkutitza. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

72. Labayenek Lagarde, Vallet, Ponte, Olazabal, Baroja eta Alberdiri egiten die erreferentzia 1935eko martxoaren 21ean? Torresi zuzendu zion gutunean. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

73. 1934ko ekainaren 1ean Olazabalek Torresi zuzendutako eskutitza. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia. Azpimarraketa gurea da.

74. "Proyecto de Instituto de 2<sup>º</sup> Enseñanza para Irún. Arquitectos: Vallet, Olazábal, Ponte, Labayen", in AC, 21, 1936ko lehen hiruhilabetea; 35- 36 or.

75. "Concurso de anteproyectos para la construcción de un edificio destinado a hogar- escuela de huérfanos de correos en la ciudad universitaria de Madrid. Anteproyecto de Eduardo Lagarde y J. Manuel Aizpúrua, arquitectos. Tercer premio", in *Arquitectura*, 2, 1935eko martxo- apirila; 58-64 or.



Luis Vallet, Juan de Olazabal, Jose Antonio Ponte eta Joaquin Labayen. Bigarren Hezkuntzarako Institutua proiektua. Irun. (Iturria: AC, 21 aldizkaria).

oinarriak idazten, eta baita zailtasun ekonomiak zirela eta egin ez ziren udarako etxeetan Zarautzen, nahiz eta azkenik Aizpurua eta Lagarde Hondarribian egin zuten udarako auzo etxe proiektuan bilakatu<sup>76</sup>.


Aizpuruaren ia urte beteko isiltasuna “nire idazteko nagitasuna”-ri soilik egotzi ziona, Torresek eten zuen arkitekto gipuzkoarra non zegoen jakin zuenean eta bien arteko korrespondentziari berriro ekin zionean, sortutako egoera aintzat hartu gabe, agian bere lan zein kolaborazio ekonomikoa beharrezkoa zelako. Baina Aizpuruak zuen GATEPAC-arekiko interes berria 1935ean bere lehengusuarekin, Eugenio Maria de Aguinagarekin, proiektatu zuen Cartagenako Bigarren Hezkuntzako Institutua aurkeztu zuten estatu lehiaketaren epaimahaiarengan eragina izateko zen<sup>77</sup>.

Hortaz, Iparraldeko Taldearen berrantolaketa saiakerak porrot egin zuten. Aizpurua, Labayen, Vallejo eta 1932az geroztik kide zen Zarranzek taldearen kuotak ordaindu zituzten bakarrik, gainerakoek bere egoera GATEPAC barruan nor-

76. 1935eko martxoaren 1ean Luis Valletek Torresi zuzendutako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

77. 1935eko azaroaren 2an eta abenduaren 20an Aizpuruak idatzitako gutunak. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.





Jose Manuel de Aizpurua eta Eugenio de Aguinaga. 1935-1936. Bigarren Hezkuntzarako Instituto proiektua. Cartagena. (Iturria: AC, 21. aldizkaria).

malizatu ez zutelarik. Raimundo Alberdi, Bartzelonako Arkitektura Eskolan 1928an titulatu zenak, Kataluniako taldea sostengatu zuen bere hasieratik. Izan ere, Josep Lluís Sert eta Sixte Illescasen klasekidea izan zen eta beraiekin Alemania, Austria, Belgika, Frantzia, Hungria eta Suitzatik egin zuen ikasketa bidaia<sup>78</sup>. Juan de Olazabal GATCPAC-eko kide izan zen, 1931eko maiatzaren 7tik aurrera, Bartzelonan arkitekto bezala egon zen hasierako hilabeteetan. Bartzelonako arkitektura ikasleen artean ohikoa zen talde berriaren kide izatea eta hala izan ziren Manuel Urcola eta Anastasio de Telleria ere. Halaber, Donostiako *Herederos de Ramon Mujica* pertsiana bilgarrien enpresa kide industrialia izan zen. Alabaina, kide ziren gremio eta industria fabrikatzaile ia guztiak Bartzelona-koak ziren, eta baita ia arkitekto guztiak, GATEPAC-ak zuen izaera kataluniarra agerian uzten duena.

## 5. ARKITEKTURA BERRIAREN NAGUSIGOA

GATEPAC-eko Iparraldeko eta Erdiko taldeen eraginkortasun eza, edo hobeto esanda sekulan jaio ez zirenen heriotza naturala, arkitektura berria estilo arazo baten moduan ulertzeko modu tradizional eta eklektikoarekin izan zuen erlazioa, eta antzaz argiegiez osatuta zegoen talde baztertzaila eta harroputzarekin ere. Izatez arkitektura berriaren protagonistak Euskal Herrian, Estatuan bezala, GATEPAC-rekin erlaziorik izan ez zuten arkitektoak izan ziren.

---

<sup>78</sup>. ILLESCAS, Sixte. *Sixte Illescas. Arquitecte (1903-1986). De l'avantguarda a l'oblit*, Bartzelona: COAC, 2008; 39 eta 93 or.

Nire pentsatzeko modua-

esaten zuen Gutiérrez Sotok,

ia guztian bat egiten zuen Gatepac-arekin, bere bilerak, mintegi eta aldizkaria arretaz jarraitzen nituen, baina gutxienez mugimendu guzti horiek presio talde itxiaren izaera dutenak eta bere burua bakar eta onenentzat dutenen hautatuekin osatuta daudenak, zaila da begikotasunik izatea eta zabaltzea". Eta jarraitzen du esanez: "bere eragina oso eskasa izan zen (...) zinez Gatepac-aren interesgarria Le Corbusier-ren 'oihuak' ziren, 'talde txoa' ez zen jada hain interesgarria<sup>79</sup>.

Horri gaineratu beharko genioke, aldizkariarekiko interes falta, arkitektura berriarekiko ilusio- galtzea eta bere aktibista nagusien utzikeria eta desertzioa. Izatez, Mercadalek 1930tik aurrera egin zituen proiektuak Europako abangoardiatik aldentzen dira, eta bere instituzionalizazioarekin baieztatu zena, Madrileko hiri arkitekto bezala aurrenik (1932) eta beranduago Madrileko Arkitektura Eskolako irakasle moduan (1934)<sup>80</sup>. Estatuan arkitektura ideia berrien alde borrokan aritu eta gero,

[...] nire obraz arduratu behar izan nintzen bizitzeko. Goyako Txokoa egin ostean, nire arkitektura ez zen batere onartua izan. Obra berriak lortzea oso zaila zitzaidan. Aurkezten zen dilema GATEPAC edo lana zen<sup>81</sup>.

Halaber, ordurarteko itxurazko poztasunarekin zer ikusirik ez zuen hogeita-mar hamarkadetako urte nahasietan; Estatuan nagusitu ziren aldaketa eta krisialdi ekonomiko, sozial eta politikoaren aurrean, taldeko arkitektoek, garaiko hainbat intelektualen moduan, beraien arteko erlazioetan eragin zuen konpromisozko jarrera hartu zuten.

Aizpurua Jose de Ariztimuñoren *Euzko Pizkundera* hurbilketa saiakera egin ostean, 1933an Falange Espainiarraren fundatzailea izan zen 1932tik ezagutzen zuen Jose Antonio Primo de Riverarekin batera. Arkitekto gipuzkoarraren konpromiso politikoa bere hainbat kideek gogoko zuten edo partaide ziren beste aukera politikoren aurkakoa zen. Kataluniako arkitektoak Generalitateko gobernu autonomoaren aldekoak ziren. Bestetik, Luis Vallejo, Juan de Madariaga eta Joaquín Zarranz euskal nazionalismoaren partaideak ziren, eta Pablo Zabalo eta

---

79. GUTIÉRREZ SOTO, Luis. *La obra de Luis Gutiérrez Soto*, Madrid: COAM, 1982 (1978); 19 or.

80. "Ensanche de Sevilla. Concurso de anteproyectos", in *Arquitectura*, 139, 1930eko azaroa; 340-350 or. GARCÍA MERCADAL, Fernando. "La futura plaza de Cuba en Sevilla", in *Arquitectura*, 142, 1931eko otsaila; 35- 39 or. CAMPO BAEZA, Alberto. *La arquitectura racionalista en Madrid*, Madrid: Escuela Técnico Superior de Arquitectura de Madrid, 1982; 143 or. Doktore tesia. SAMBRICIO, Carlos. *Cuando se quiso resucitar la arquitectura*, Murtzia: Comisión de Cultura del Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos. Galería- Librería Yebra. Consejería de Cultura y Educación de la Comunidad Autónoma, 1983 (1980); 162 or. ARES ÁLVAREZ, Óscar M. "Entre Madrid y Barcelona: la imposibilidad del grupo Centro", in *El GATEPAC. y su tiempo. Política, cultura y arquitectura en los años treinta. Actas del V Congreso DOCOMOMO Ibérico*. op. cit.; 123- 130 or.

81. GARCÍA MERCADAL, Fernando. "Mesa redonda con Rafael Bergamín, Fernando García Mercadal y Casto Fernández Shaw", in *Hogar y Arquitectura*, 70. 1967ko maiatza-ekaina; 39 or.

Tomas Bilbao militanteak. Bilbao bera, Justo Garate eta Anacleto Ortuetarekin batera 1930ean *Acción Nacionalista Vasca/ Euzko Abertzale Ekintza* fundatu zuen, gero Bilboko Udaleko zinegotzi, Euzko Jaurlaritzaren Herri- Lanetako konseilari eta Juan Negrín presidentearen kabineteko ministro izan zelarik.

1934ko abuztuaren 29an, Aizpuruak GATEPAC-arekiko zuen konpromisoa uzten zuen bitartean, Jesus Olasagasti, Carlos Ribera, Julian de Tellaheche eta Juan Cabanas Erausquinekin batera, Donostian *GU* artista talde berria fundatu zuen. Elkarrekin kultur gastronomikoak izaera ezberdineko artistak biltzeko helburuarekin fundatu zen, eta egia bada kide batzuk falangekoak izan zirela, talde heterogeneoa zen<sup>82</sup>. Ondoren, lehen aipatu bezala 1935ko ia urte osoan zehar Madrilan egon zen Heziketa Publikoko Ministerioan lan egiten<sup>83</sup>, eta bertatik burutako lana hutsala izan bazen eren, GATCPAC-eko arkitektoek Kataluniako Generalitatetik eta Tomas Bilbao Bilboko Udaletik CIRPAC eta GATEPAC-ak aldarrikatzen zuten arkitektura bidez panorama zibil eta politikoan eragin egiteko aukera izan zuen. Baina Aizpuruak taldea alde batera utzi zuen, 1934 urte erdialdetik aurrera ez zion ez euskal, ez estatuko taldeari jaramonik egin. Izatez esan-



Jose Manuel Aizpuru eta Felipe López Delgado. 1936. Madrilerako Museo Proiektua. *Arquitectura* aldizkaria.

82. GU-ri buruz kontsulta daiteke: GIMÉNEZ CABALLERO, Ernesto. *Arte y Estado*. Madril: Gráfica Universal; 211-219 or. MOYA, Adelina. *Orígenes de la Vanguardia Artística en el País Vasco*. op. cit.; 79- 99 or.

83. AIZPÚRUA SÁNCHEZ, María Ángeles; MEDINA MURUA, José Ángel. "Biografía de José Manuel Aizpúrua Azqueta", in *José Manuel Aizpúrua fotógrafo. La mirada moderna*. Madril: Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, 2004; 47 or. MEDINA MURUA, José Ángel. "Arquitectura y política: el caso de José Manuel Aizpúrua", in *El GATEPAC y su tiempo. Política, cultura y arquitectura en los años treinta*. *Actas V Congreso Fundación DOCOMOMO Ibérico*. op. cit.; 75 or.

guratsua da 1934ko otsailan Mercadalek bere proiektuak *Arquitectura* aldizkarian AC-n baino lehenago argitaratzeagatik kexatzea eta ondorengo hilabetetan berak gauza bera egitea<sup>84</sup>. Hala gertatu zen 1934ean Eduardo Lagarderekin egin zuen Correoseko Umerzurtzentzako Eskola Etxea, eta Felipe López Delgadoarekin egin zuen Arte Modernorako Museo proiektuekin eta 1933an egin zuen beste museo proposamenarekin zer ikusirik ez zuena<sup>85</sup>. 1933ko proiektua Aizpuru eta Labayen sinatu zuten GATEPAC-eko Iparraldeko kide moduan, 1935ekoa berriz ez zen taldearen lan bezala aurkeztu nahiz eta López Delgado talkide izan eta bere lana AC-n argitaratu. Gainera bi lanak formalki ere ezberdinak ziren, aurrenekoan estetika berria nagusi zen bitartean, bigarrenean “modulu klasikoak, izpiritu modernora moldatuta” zeuden, “modu orijinalan landutako harria eta adreiluaren erabilerari esker, Madrileko mende aurreko arkitekturekin bat egiten duen ebazpena lortuz”<sup>86</sup>. Aldiz, 1935ean Aguinagarekin batera Cartagenarako egin zuen Bigarren Hezkuntzako Institutuan, AC-k hasieratik aurkeztu zuen arkitektura ulertzeko modu tradizionalekin bat eginez, arkitektura herrikoi eta mediterraneo baten alde egin zuen, eraikina kokatu behar zen lekuarekin bat egiten zuen estetika bereganatuz. Aizpuruak arkitektura tokian tokiko klima eta eraikuntza motetara moldatu behar zela uste baitzuen<sup>87</sup>.

Hortaz arkitekto gipuzkoarraren GATEPAC-arekiko konpromiso aldaketa bat dago, eta baita arkitektura ulertzeko moduan ere, hasierako Klub Nautikoan egin zituen saiakera makinistetatik aldentzen dena eta modernitatea ulertzeko beste modu batera hurbiltzen duena. Alabaina GATEPAC-eko arkitekto guztiek arkitektura berria antzerako moduan ulertu zuten, nahiz eta politikoki jarrera ezberdinak izan, Gerra Zibilarekin erbesteratzea, kartzela, gaitasungabetze profesionala, eta heriotzarekin ordaindu zutena. Aizpuru bere militantzia politikoagatik fusilatu zuten, Joaquín Zarranz gerra- tokian hil zen, Juan de Madariaga, Tomas Bilbao eta Pablo Zabalo arrazoi politikoengatik erbesteratu ziren, eta Euskal Herrian geratu ziren beste batzuk Luis Vallejo bezala, kartzelaratu edota beste batzuei gertatu zitzaizen moduan gerra bukatzean ezarri zen errejimen berriak gaitasungabetu. Anastasio Telleria eta Jose Antonio Ponte Estatu berriaren berre-  
raikuntzarako lanetan ibili ziren bitartean<sup>88</sup>.

---

84. 1934ko otsailaren 1ean Aizpuruak Torresi zuzendutako gutuna. Arxiu Històric COAC. Fons GATCPAC. Korrespondentzia.

85. López Delgado eta Aizpuruaren arteko elkarlana ez zen kasualitatea izan, biak Madrileko eskolan ikasi eta 1927 eta 1928 bitartean proiekturen bat elkarrekin egin baitzuten.

“Concurso de anteproyectos para la construcción de un edificio destinado a hogar- escuela de huérfanos de Correos en la Ciudad Universitaria de Madrid. Anteproyecto de Eduardo Lagarde y J. Manuel Aizpúrua. Tercer premio”, in *Arquitectura*, 2, 1935eko martxo- apirila, 58- 63 orr. “VI Concurso Nacional de Arquitectura. Segundo premio: José Manuel Aizpúrua y Felipe López Delgado, arquitectos”, in *Arquitectura*, 2, 1936ko otsaiala; 45-56 or.

86. “VI Concurso Nacional de Arquitectura. Segundo premio: José Manuel Aizpúrua y Felipe López Delgado, arquitectos”. op. cit.; 56 or.

87. AGUINAGA, Eugenio María de. “José Manuel Aizpúrua”, in *Revista Nacional de Arquitectura*, 191. 1957ko azaroa; 10 or.

88. GARITAONAINDÍA de VERA, José Ramón. *Joaquín Zarranz Pueyo. Hacia una verdadera arquitectura racional*. opus cit.;12, 35 eta 149 or. MUÑOZ FERNÁNDEZ, Francisco Javier. “Reconstrucción y vivienda en el País Vasco de postguerra (1937- 1950)”, in *Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y*

1937ko ekainean, Madril setiatuta, tropa nazionalak Donostia hartuta eta Bilbo hartzeko zorian zeudenean, *AC Documents d'Activitat Contemporània*-k bere azkenengo zenbakia argitaratu zuen. Buletinak ez zuen GATEPAC-eko kideen egoeraren berri eman, agian ezjakintasunagatik edota nahita. Iraultza garaiaren ostean orden berri bat ezarriko zelakoan zeuden, ordurarte praxian jarri ez ziren bere arkitektura ideia berriak garatzeko abadagunea. Aldizkariaren azkenengo zenbakia Estatuko gobernu errepublikarrak Joan Miróri enkargatu zion *Aidez l'Espagne* pinturarekin bukatzen zen. Baserritar bera, 1937an Parisen antolatu zen Nazioarteko Erakusketarako gobernuak Josep Lluís Sert eta Luis Lacasa arkitektoei enkargatu zien pabiloian agertu zen. GATEPAC-eko kideak hogeigarren hamarkadatik proiektu, hitzaldi, erakusketa, lehiaketa, argitalpen eta hasierako saiakeren bidez publikizatu zuten arkitekturaren arrakastaren abibidea izan zen eraikina. II Errepublikarekin batera, estetika arrazionalista Estatuan bezala, Euskal Herriko eraikuntzan orokortu baitzen. Herri eta hirietako itxura urbanoa nahiz eta modu estetiko eta guztiz azaleko modu batean, GATEPAC-ekoak ez ziren arkitektoen eskutik aldatu zelarik.



Florencio Mocoroa. 1935. Auzo etxea Donostiako Zurriola, Kolon eta Kale Nagusian (Fototeka Kutxa).

---

*Monumentales*, 25 zkia. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2006; 75 or. MUÑOZ FERNÁNDEZ, Francisco Javier. "Ruinas y grietas en la arquitectura vasca de posguerra. La Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones en el País Vasco", in *La multiculturalidad en las artes y la arquitectura*. Las Palmas de Gran Canaria: Gobierno de Canarias. Anroart Ediciones, 2006; 828 or. SANZ ESQUIDE, José Ángel. *La tradición de lo nuevo en el País Vasco. La arquitectura de los años treinta*. Barcelona: Unibertitat Politècnica de Catalunya. Escola Tècnica Superior d'Arquitectura de Barcelona, 1988; 23 or. Doktore tesia.

## BIBLIOGRAFIA

- AA.AA. *Aguinaga*, Bilbao: EHAEO. Bizkaiko Ordezkaritza, 1992.
- AA.AA. *El GATEPAC y la revista AC Catalizador de la vanguardia arquitectónica española. 1931- 1937*. Zaragoza: Colegio Oficial de Arquitectos de Aragón, 2005.
- AA.AA. *AC. La revista del GATEPAC (1931- 1937)*. Madrid: Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, 2008.
- AGUINAGA, Eugenio María de. "José Manuel Aizpúrua". In: *Revista Nacional de Arquitectura*, 191. 1957ko azaroa, 10 or.
- AIZPÚRUA SÁNCHEZ, María Ángeles; MEDINA MURUA, José Ángel. "Biografía de José Manuel Aizpúrua Azqueta". In: *José Manuel Aizpúrua fotógrafo. La mirada moderna*. Madrid: Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, 2004; 33- 52 or.
- ALCOLEA, Rafael A. "De Ac a De 8 En Opbouw: la casa Lovell Health". In: *El GATCPAC y su tiempo. Política, cultura y arquitectura en los años treinta. Actas del V Congreso Fundación DOCOMOMO Ibérico*. Barcelona: Fundación do.co.mo.mo. ibérico, 2006; 213-218 or.
- ARES ÁLVAREZ, Óscar M. "Entre Madrid y Barcelona: la imposibilidad del grupo Centro". In: *El GATCPAC y su tiempo. Política, cultura y arquitectura en los años treinta. Actas del V Congreso Fundación DOCOMOMO Ibérico*. Barcelona: Fundación do.co.mo.mo ibérico, 2006, 123; 130 or.
- BONET, Juan Manuel. *Diccionario de las vanguardias en España 1907-1936*. Madrid: Alianza, 1999 (1995).
- CAMPO BAEZA, Alberto. *La arquitectura racionalista en Madrid*. Madrid: Escuela Técnica Superior de Arquitectura de Madrid, 1982. Doktore Tesia.
- CASSANYES, M.A. "Joan Miró: el extraordinario". In: *AC*, 18, 1935eko bigarren hiruhilabetea; 40- 41 or.
- "De 8 en Opbouw". In: *D.C. Revista de crítica arquitectónica*, 13-15. 2005eko urria; 38-53 or.
- E.E. "Exposición de arquitectura moderna". In: *La Construcción Moderna*, 18; 1930ko irailak 30; 276-278 or.
- ENCINA, Juan de la. "De arte. El Estado y la Arquitectura". In: *La Voz*, 1928ko uztailak 14; 1 or.
- FERNÁNDEZ, Luis. "El escultor González". In: *AC*, 5, 1932ko lehen hiruhilabetea; 30- 31 or.
- . "Hans Arp y Madame Arp". In: *AC*, 6, 1932ko bigarren hiruhilabetea; 42-43 or.
- GABARAIN, Ramón. "En San Sebastián. Una Exposición de Arquitectura y Pintura Modernas en San Sebastián". In: *La Gaceta Literaria*, 90, 1930eko urriak 1; 13 or. R.G. sinatuta.
- GARCÍA MERCADAL, Fernando. "Arquitectura en Stuttgart. La Exposición de la Vivienda". In: *Arquitectura*, 100, 1927ko abuztua; 295- 298 or.
- . "Nueva arquitectura en el País Vasco: Aizpurúa, Labayen y Vallejo". In: *Arquitectura*, 115, 1928ko azaroa; 358-362 or.
- . "La futura plaza de Cuba en Sevilla". in: *Arquitectura*, 142, 1931eko otsaila; 35- 39 or.
- . "Una exposición de viviendas. Ejemplo digno de ser imitado". In: *Obras*, 13, 1932ko azaroa; 255- 260 or.

- “Mesa redonda con Rafael Bergamín, Fernando García Mercadal y Casto Fernández Shaw”. In: *Hogar y Arquitectura*, 70, 1967ko maiatza-ekaina; 36- 43 or.
- “Testimonio de Fernando García Mercadal”. In: *Nueva Forma*, 40, 1969; orrialdeak zenbaturik gabe.
- GARITONAINDÍA DE VERA, José Ramón. *Joaquín Zarranz Pueyo. Hacia una verdadera arquitectura racional*. Iruñea: Universidad de Navarra. Escuela Técnica Superior de Arquitectura, 1997. Doktore Tesia.
- “De las muchas fundaciones del GATEPAC Aizpurúa y la exposición de arquitectura y pintura modernas, San Sebastián 1930”. In: *r.a. revista de arquitectura*. 1998ko martxoak 2; 52- 61 or.
- GASCH, Sebastián. “Dibujos de Ángel Ferrant”. In: *AC*, 4, 1931eko laugarren hiruhilabetea; 28- 29 or.
- “El escultor americano Calder”. In: *AC*, 7, 1932ko hirugarren hiruhilabetea; 43 or.
- GIEDION, Sigfried. “Informe de la comisión encargada de la preparación del congreso de Bruselas de 1930”. In: *Arquitectura*, 134, 1930eko ekaina; 186- 188 or.
- “El arquitecto Marcel Breuer”. En: *Arquitectura*, 155, 1932ko martxoa; 82-90 or.
- *Escritos escogidos*, Mutzia: Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos. Librería Yerba. Cajarmurcia, 1997.
- GIMÉNEZ CABALLERO, Ernesto. *Arte y Estado*. Madril: Gráficas Universal.
- GRANELL, Enric. “AC contra todos”. In: *El GATEPAC y su tiempo. Política, cultura y arquitectura en los años treinta. Actas del V Congreso Fundación DCOMOMO Ibérico*. Bartzelona: Fundación do.co.mo.mo. ibérico, 2006; 179- 189 or.
- “ADLAN”. In: *AC La revista del G.A.T.E.P.A.C, 1931- 1937*. Madrid: Museo Nacional de Arte Reina Sofía, 2008; págs.114- 128.
- GUTIÉRREZ SOTO, Luis. *La obra de Luís Gutiérrez Soto*. Madril: C.O.A.M., 1982 (1978).
- HITCHCOCK, Henry- Russel; JOHNSON, Philip. *The International Style*. New York. London: W. W. Norton & Company, 1995 (1932).
- ILLESCAS, Sixte. *Sixte Illescas. Arquitecte (1903- 1986). De l'avantguarda a l'oblit*. Bartzelona: COAC, 2008.
- LOYGORRI de PEREDA, E. “El progreso urbano de Bilbao. Una feliz iniciativa de los arquitectos catalanes. La Cirpaco organización internacional de arquitectos. Nuevas cosas construidas por don Félix de Ugarte y Echevarría”. In: *Propiedad y Construcción*, 94, 1930eko abendua; 6-7 or.
- MEDINA MURUA, José Ángel. “La libreta de Labayen y Aizpúrua. Un antecedente de la influencia alemana en la arquitectura española”. In: *Modelos alemanes e italianos para España en los años de postguerra*. Iruñea: T6 Ediciones, 2004; 207-214.
- *Crónica de la vanguardia. 1927- 1936. La arquitectura de Aizpúrua y Labayen*. Iruñea: Universidad de Navarra. Escuela Técnica Superior de Arquitectura, 2005. Doktore Tesia.
- “Arquitectura y política: el caso de José Manuel Aizpúrua”. In: *El GATEPAC y su tiempo. Política, cultura y arquitectura en los años treinta. Actas del V Congreso Fundación DCOMOMO Ibérico*. Bartzelona: Fundación do.co.mo.mo. ibérico, 2006; 73- 78. or.
- MOYA, Adelina. *Orígenes de la Vanguardia Artística en el País Vasco*. Madrid: Electa, 1994.
- MORENO VILLA, José. “El poeta Morena Villa pintor”. In: *AC*, 3, 1931eko bigarren hiruhilabetea; 30- 31 or.

- MUÑOZ FERNÁNDEZ, Francisco Javier. "Arquitectura racionalista en San Sebastián. Las conferencias de Fernando García Mercadal y Walter Gropius". In: *Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales*, 23, 2004; 195- 213 or.
- . "Reconstrucción y vivienda en el País Vasco de postguerra (1937- 1950)". In: *Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales*, 25, 2006; 33-76 or.
- . "Ruinas y grietas en la arquitectura vasca de posguerra. La Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones en el País Vasco". In: *La multiculturalidad en las artes y la arquitectura*. Las Palmas de Gran Canaria: Gobierno de Canarias. Anroart Ediciones. 2006; 823-830 or.
- MUR PASTOR, Pilar. *La Asociación de Artistas Vascos*. Bilbao: Museo de Bellas Artes de Bilbao, 1985.
- PÉREZ SEGURA, Javier. *Arte moderno, vanguardia y Estado. La Sociedad de Artistas Ibéricos y la República (1931- 1936)*. Madril: CSIC, 2002.
- PIZZA, Antonio; MARIN, Celia. "Los socios del GATCPAC (1931- 1938)". In: *Una nueva arquitectura para una nueva ciudad*. Bartzelona: Museu d'Història de la Ciutat de Barcelona. Col·legi Oficial d'Arquitectes de Catalunya, 2006; 43-44 or.
- PIZZA, Antonio. "Desarrollo y propaganda de un ideario moderno: los 25 números de la revista AC Actividad Contemporánea". In: *GATCPAC Una nueva arquitectura para una nueva ciudad. 1928- 1939*. Bartzelona: Museu d'Història de la Ciutat de Barcelona. Col·legi Oficial d'Arquitectes de Catalunya, 2006; 278- 307 or.
- ROCA ROSELL, Frances. "AC: del G.C.A.T.S.P.A.C. al S.A.C.". In: *AC/ GATEPAC, 1931- 1937*, Bartzelona: Gustavo Gili, 1975; 11-18 or.
- SAMBRICIO, Carlos. *Cuando se quiso resucitar la arquitectura*. Murtzia: Comisión de Cultura del Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos. Galería- Librería Yebra. Consejería de Cultura y Educación de la Comunidad Autónoma, 1983 (1980).
- SANZ ESQUIDE, José Ángel. "La arquitectura en el País Vasco durante los años treinta". In: *Arte y artistas vascos de los años 30. Entre lo individual y lo colectivo*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1986; 13- 138.or.
- . *La tradición de lo nuevo en el País Vasco. La arquitectura de los años treinta*. Bartzelona: Unibertitat Politècnica de Catalunya. Escola Tècnica Superior d'Arquitectura de Barcelona, 1988. Doktore Tesia.
- . "El periodo heroico de la arquitectura moderna en el País Vasco (1928- 1930)". in *Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales*, 23. 2004; 77- 90 or.
- SARTORIS, Alberto. *Gli elementi dell'architettura funzionale*. Milán: Ulrico Hoepli, 1932.
- STEINMANN, Martin. *CIAM Dokumente 1928- 1939*. Basel. Stuttgart: Birkhauser, 1979.
- TEIGE, Karel. *The Minimum Dwelling*. Cambridge (Mass.). London: The MIT Press, 2002.
- TORRES CLAVÉ, Josep. "¿Qué penseu de l'arquitectura moderna". In: *Mirador*, 63, 1930ko apirilaren 10ean; 7 or.
- UCELAY, Enric. "El arquitecto como 'técnico' revolucionario en la Cataluña de la década de 1930". In: *El GATEPAC y su tiempo. Política, cultura y arquitectura en los años treinta. Actas del V Congreso Fundación DOCOMOMO Ibérico*. Bartzelona: Fundación do.co.mo.mo. ibérico, 2006; 49- 59 or.
- WESTERDAHL, Eduardo. "Wili Baumesteir. Pintor". In: *AC*, 16, 1934ko laugarren hiruhilabetea; 40- 41 or.